


2002ko maiatzaren 9a • XXII. urtea



Aizkora apostuak gero eta guttiago

04

Apirilaren 28an aizkora apostua irabazi zion Miel Mindegiak Arria V.ari. Baina garai batean ohikoak izan ziren desafio hauek gainbeheran doaz herri kirolean.



Erakurri taldeko txirrindulariak


25

Leitzako Erakurri elkarteak afizionatu mailako taldea errepide-ratuko du aurten ere, Azpiroz-Saralegi eraikuntzak eta Eva edarien babesean.

03

Lekarozko Institutuko liburutegia saritua






www.kc.n



ZE MIK
ET INUEN
E KUSKET IK
KUSG IEN
 EUSK I HE IK EZI IK I E EN K

alkain
 z ramikak ta bariuak

1 UN. TIN. I I. 2. 3.
 C. 2. 3. 4. 5. 6. 7. 8. 9. 10. 11. 12.
 Tel. 948 637 525 Fax 948 637 525
 C/Alfonso XIII, 10. 48900 Leizor (Bizkaia)



FRAIN TAILLE -

Otsango Auzoa • LESAKA • Tel./Fax: 948 637 525

BAZTAN-MALERREKA-BIDASOARAKO
SUBARU, KIA eta SSANGYONG AGENTE OFIZIALA
BIGARREN ESKUKO INPORTAZIO IBILGAILUEN SALMENTA: BMW, AUDI, VW



KIA:

Merkatuan dagoen 4x4 ekonomikoena



SUBARU:

Munduko Rally txapeliduna. Autorik sal-

DATUAK...

• Lekarozko Institutuak Nafarroako Gobernuaren saria jaso du “Liburutegiko materialen ustiapena eta irakurzaletasuna bultzatzea” proiektuarengatik. Liburutegian ikasleekin lan handia egin dute urte osoan, sariarena ustekabeen etorri da.

• Ane Zuloaga Lekarozko irakaslea da eta bertze lankideekin proiektua gauzatu du. Berak esan bezala “nahikoa da etorki-zunerako irakurzale bat edo bi gehiago lortu bada”.



Ane ZULOAGA *Lekarozko institutuko irakaslea*

RAKEL GOÑI

«Lehiaketara aurkeztu ginenean ez genuen uste deus lortuko genuenik»

Rakel GOÑI

Nola erabaki zenuten irakurketa bultzatzeko proiektua martxan jartzear?

Eskola liburutegietako mintegian sartuak gaude, ikastaro bat egitea bezala da guretzat. Gure koordinatzaileak, M^a Antonia del Burgok, irakurriaren ulermena lantzea proposatu zigun. Ikasleek eskasia batzuk dituzte, ez dutelako irakurritakoa ulertzen, ez bakarrik euskal literaturan, beste gaietan ere nabaria da. Hau saihesteko hezkuntza administrazioetik janik dinamika bat abian dago. Hori helburutzat hartuta, liburutegian irakurketa plana diseinatu genuen. *Lengua y literatura española* eta *euskal hizkuntza eta literatura mintegien artean aurrera daramagu proiektua*. Gainontzeko mintegiei irakurketa planean parte hartzea proposatu genien, bakoitza bere gaiatik abiatuta. Testu ezberdinak aukeratu eta ordu bat edo bi orduko saioetan landu ziren. Ondotik ebaluazioa prestatu behar zen. Lan hori dena bildu ondotik konturatu ginen Nafarroako Gobernuak kanpaina horrekin lehiaketa bat antolatu

«Ikasleek eskasia batzuk dituzte, ez dutelako irakurritakoa ulertzen, ez bakarrik euskal literaturan, beste gaietan ere nabaria da»

tzen zuela, eta proposatu genuen egindako lanak entregatzea.

Liburutegian lan handia egin duzue...

Bai, irakasle batek historia unibertsaleko liburuak prestatu du A eta D ereduak irakasleekin, bat gazteleraz eta bertzea euskaraz, liburutegiko materialetatik abiatuta. *Lengua* eta *euskarako* 4. DBHko ikasleek, gure literatura, 1960 bitartekoa aztertu eta zerrendatu dute. *Lengua* eta literatura beste irakasle batek gauza bera egin du apaletan zeuden antzerki liburuekin, DBH 1 eta 2ko ikasleekin. Lan guztiak bildu eta izenburua jarri genion, “*Liburutegiko materialen ustiapena eta irakurzaletasuna bultzatzea*” eta halaxe bidali genuen lehiaketara. Ez genuen uste deus aterako zenik horretatik, baina saria eman digute, hala suertatu da.

Erakusketa bat antolatu duzue...

Bai, ikasle bakoitzari etxean zuen edozein liburu ekartzea eskatu dugu. Irakurtzeko adinaren arabera sailkatu ditugu eta jostailuekin batera kokatu ditugu. Jendea etorri da eta gogoratu du berak halako bat ere bazuela nonbait ere, eta orduan kasikoan jarri zaio ea amak bota ote duen ala ez. Lehenbizian pentsatzen genuen liburu klase batzuk ez zirela dotoreak, era guzietako liburuak bildu ditugulako, “*Jazmin*” adibidez. Baina gero pentsatu genuen helburua ez zela literatura ekartzea, irakurtzen ongi pasatu duzun liburuak.

Liburutegiak ikastetxeetako tokirik ezezagunetarikoa dira?

Bai, guk hemen ordutegiak antolatzen ditugu zein ordu ditugun libre jakiteko. Eta liburutegian egon gaitzekkeen orduak banatzen ditugu. Saiatzeko gara ahal dugun guzietan liburutegian egoten, ikasleei zerbitzu hori eskaintzen diegu. Lekarozen 25.000 liburu daudela uste dugu. Suerte handia izan dugu, tokia ere handia delako. Zuzendaritzaren aldetik laguntza ere izan dugu.



Mikel Mindegia aizkolaria, lanak akitu ondotik.

ARTXIBOKOA

Apirilaren 28an egin zen Tolosako zezen plazan XXI. mendeko lehendabiziko aizkora apostu handia. 53 urte bete berriak dituen Mikel Mindegia eta 24 urteko Xabier Orbegozo «Arria V» aritu ziren. Garaipena eta jokoan zeuden 12.000 euroak zaharrenaren alde erori ziren. Ikusmin handia piztua zuen apostu honek, baina oraindik handiagoa izaten zen 1950. hamarkadan, Latasa, Luxia edo Gartziaarena aritzen zirenean. Hamabortz mila lagun biltzen ziren orduan Donostiako zezen plazan. Txapelketek indarra kendu diote desafioei, dudarik ez. Batzuk diote herri kirolaren funtsa apostua dela. Bertzeen ustez, txapelketen bidea da egokiena aizkolarien prestakuntza eta maila neurtzeko.

AIZKORA: TXAPELKETA ETA APOSTUEN ARTEAN

Indarrak neurtzeko grina ez da oraindik itzali aizkora desafioetan

Aitor AROTZENA

«Apostuaren arrazoia garbi dago: Euskaldunak 'ez eta bai, bai eta ez' hasten gara eta hurrengo 'Nahi al duk mila duro jokatu?' izaten da eta hor akitzen da. Beti desafio punttu hori izan dugu eta hori mantendu behar dela iruditzen zait. Batek arrazoia eta besteak arrazoia, hori erabakitzeke jokatu egin behar da eta trankil gelditzen dira biak». Mikel Mindegia, 53 urtetan hogeikanaerdikora desafioa irabazi berria duen aizkolaria, solasak dira. Hainbat txapel ofizial irabaziak ditu baita hainbat apostu jo-

katutakoa ere. Kasualitatez, lehenbizikoa ere Tolosako zezen plazan jokatu zuen, baina orduan lau protagonistak Ezkurakoak ziren: «Bi anai bi anaiari aritu ginen, ni eta nire anaia Antonio, Ezkurran goiko puntan dagoen Irikobordakoak, behe-behean dagoen Olako Miel eta Jexux Mariezkurrenaren kontra. Orduan 18 urte nituen nik eta lehenik banuen exhibizio bat edo beste egina. 19-20 urterekin Polipasoren kontra aritu nintzen eta geroztik hainbeste». Hainbertzeren artean ez du bakar bat ere bereziki oroimenean gordea Minde-

giak. «Galdutakoak ere badira eta haietaz gehiago oroitzen naiz, baina badira irabazitako saila ere, asko jokatzen baduzu denetik tokatzen da».

«GERO ETA APOSTU GUTXIAGO JOKATZEN DIRA»

Gaur egun apostu gutxiago egiten dira eta egiten diren bakan horiek ez dute duela hamarkada batzuk mugiarazten zuten jendetza mugitzen. Mindegia dioenez, «lehen-lehen apostuak izaten ziren, ez asko, baina gure denboran, Mendizabal, Arria eta nirekin apostu gehiago egin ziren.

Orain berriz gutxitu egin da. Ez da kit zergatik den, galtzeko beldurra... baina bietako batek galdu behar izaten du. Konpentsatu ere egiten du: Jende asko joaten da eta sarrera ona izaten da, eta gainera irabazi egiten baduzu, diru puxka bat biltzen da». Jende gutxiago mugitzeak ere badu bere arrazoiak: «txapelketa gehiago jokatzen dira eta telebistaz ere kasik astero izaten da aizkora saioaren bat... Igual horregatik apostua egiten denean jende gutxiago joaten da. Adineko jendea gero eta gutxiago gelditzen ari da eta, nola ez dagoen gazteen artean aizkolari on xamarrik, ez da gazterik joaten plazara. Lehengoan Tolosan bai, bazen gazte jende gehiago. Aizkolari gazteak martxa hobean baleude, gazte gehiago mugituko litzateke».

«APOSTUAK ETA TXAPELKETAK EZ DAUDE KONTRAJARRIAK»

Apostuaren kontrako jendea ere bada herri kirolaren munduan, aizkolariaren indarra txapelketan neurtu behar dela diotenak, baina Mindegia garbi du hori: «Apostua jokatzeagatik txapelketa jokatzen ahal duzu igual-igual, horrek ez dio txapelketari deus kentzen. Igual apostua jokatzeke gai ez direnak aritzen dira jokatzen dugunon kontra, ez dakit... Apostura nahi duena joaten da, nahi ez duena ez, nahi duenak dirua jokatzen du, nahi ez duenak ez». Dena den, etorkizunean ez du apostu gehiagotan parte hartzeko asmorik: «Adin handia daukat nik horrelako kontuetan aritzeko eta gainera, bizia beste lan klase batzuk eginez ateratzen dugu... Orain, Arria V. bezala bat etortzen bazait ni haintzat ez hartuz, igual jokatu egin beharko dugu gauzak bere lekuan uzteko, baina jokatzeke amorrurik ez daukat».

AIZKORA APOSTUAK HISTORIAN



AINZINAKO EUSKAL HERRIKO BIZIMODUA POSTAL IRUDIETAN LIBURUTIK

Mende hasierako aizkora apostua Uitziko plazan.

Aizkora apostuen jatorria zehazteko denboran gibelera egin behar da. Erdi Aroan, Euskal Herrian indar handia zuten untzigintzak eta olek. Egureta ikatz ausarki behar zenez, aizkolari eta ikatzgile ugari zeuden. Oihanean, enborra nork lehenago moztu, honela hasi ziren lehenbiziko apostuak. Lagunartean egiten ziren apostu hauek indarra hartzen joan ziren eta XIX. mendean, aizkora apostuak Euskal Jaien egitarauaren barnean sartzen hasi ziren.

Aizkora apostuei buruzko lehen agiri idatzia 1802ko ekainaren 7koa da. Egun horretan, Hernaniko plazan Ezkurra Ramon Elizalde eta Astigarragako Hernan-

dorena aritu ziren. XIX. mendeko bigarren erdiko aizkolari famatuak hauek izan ziren: Agustín Unanue, Manuel Azpillaga, Juan Bautista Aierretxe, Antonio García "Iturritxa", Francisco Iriondo "Otolá", Manuel Urueagasti, Ignacio Amutekategi "Arbiseta", Roque Epelde eta, batez ere, Joxe Arrospide azpeitiarra.

Tolosa, Azpeitia, Donostia eta Eibarko zezen plazak 1903. urtean inauguratu ziren eta aizkora apostu handien lekua izan ziren. Herri kiroleko lehenbiziko «izarrak» orduan sortu ziren. Handiena Santa Ageda izan zen. XX. mendeko lehen proba handia berak burutu zuen Azpeitiako zezen plazan 1903ko aben-

duaren 27an. XX. mende hasieran famatuak izan ziren Jose Martín Goenaga "Atxunberria", Jose Soraluze "Korta", Jose Aranburu "Keixeta", Kotaberri eta Arria I.

Espainiako Gerraren ondotik berriz ere hasi ziren apostu eta erakustaldiak. 1950. hamarkadan izanen dira jendetsuenak: 1950ko urriaren 29an Gartziaarena leitzarra eta Luxiaren artekoa honek irabazi zuen; 1952ko abenduaren 7ko errebantxa ere honek irabazi zuen; 1959ko apirilaren 26an Latasa sunbildarra Luxiari gailentzen zaio. Donostiako zezen plazan egin ziren norgehiagoka hauek eta baita 15.000 ikusle inguru zeuden.

Donato LARRETxea Arantzako aizkolaria

"Nik neronek nahiago dut apostuan aritu txapelketako saioan aritu baino"

Aizkora apostu aunitz egingdakoa zara. Txapelketa edo desafioa nahiago?

Apostu dexente egingdakoa naiz, hamar bat, Olasagastirekin lau, Mindegiarekin pare bat, Arrospidarekin... Txapelketatik apostura gauzak aunitz aldatzen dira niretzako. Apostu batean bi lagun-tzailerekin zara eta nik beti apostu lanetan erakutsi dut ni-

re abildadea hobekiago. Txapelketetan beharbada ez dut nire lana behar bezala azaltzen. Bakarrikan ez naiz sobera ongi zentratzen eta galdu egiten naiz. Azkeneko apostua duela hiru urte egin nuen Olasagastirekin eta irabazi nuen.

Aizkora apostuak, dena den, gainbeheran doaz...

Ez du jendeak lehen bezala

jokatzen, zaletasunik ez da. Gazteak ere gutxi dira eta daudenei oraindik pixko bat falta zaie. Apostua herri kirol munduan gauza ona da afizioa lortzeko. Aizkolariak hobekiago neurtzen dira apostuan txapelketetan baino. Txapelketan gorabehera gehiago izan daitezke egurrekin: apostuan egur guziak berdinak dira bien-tzat eta hor ikusten da.

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemmanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel

Gofi. **Berriemaileak:** Mikel Illarregi,

Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar,

Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isa-

si, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena,

Alba Fernandez, Franck Dolosor, Mar-

gari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Car-

los Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Fre-

derick Berruet, Angela, Iñintza eta

Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txope-

rena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxel-

torena, Aitor Arotzena, Asier Gogor-

tza, Rakel Gofi.

Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Eus-

kal Herriko Kontsumitzaileen Antola-

keta...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde La-**

guntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta,

Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta

Sarako udalak, Zugarramurdiko Ake-

larre elkarteak, Bortzirietako Euskara

Mankomunitatea, Malerrekako Zer-

bitzu Mankomunitatea, Zugarra-

murdiko Akelarre Elkarteak...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
España	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Malerrekak, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Frantziako presidentea hautatzeko bozak



Jean ANIOTZBEHERE Sarako auzapeza

Holako hauteskundeetan hemengo aferak itzaliak gelditzen dira

Frantziako presidentea hautatzeko bozetan Frantzia mailako auzi nagusiek hartzen dute garrantzia batez ere, eta Euskal Departamentuarena bezalako aferak bigarren lekuan gelditzen dira, haien zat lehentasuna ez baita Departamentua, bistan da.

Euskal Departamentua hemen gehienek nahi dute, baina holako hauteskunde berexietan, eskuin edo ezkerreko presidentea hautatzeko momentuan, gehienek ahazten dute Departamentuaren afera.

Zernahi gisa, norbait presentatuko balitz holako hauteskunde berexietan erranez Departamentua dela beretzat lehentasuna, hori dela printzipalena, ez da pasatuko, ez du bozik ukamen holako hauteskunde berexietan.

Eta hori da gure lana. Euskal Departamentuak behar du berezitasun bat ukan. Badakigu gehienak ados direla, baina... ez da errexerratea. Departamentua ez badugu sorrarazten, ni beldur naiz Iparraldean eskual gaiak gibelat egingen duela ez baldin badu instituzio bat gibeletik.

Orai beharbada, Laborarien Ganbareekin urrats bat egingen dugu. Chirac ados da. Guretzat hori arraz inportanta da. Laborariak gero eta gutiago dira baina halere badute oraino indar handia. Hortan, Departamentuari buruz urrats ona izanen da egiten baldin bada. Ez dugu oraino e! Ohartzen baldin badira guretzat urrats handia dela guretzat, ez dute emanen. Ekonomia eta politika biak elgarrekin doazi.

Jendea izitua da eta ez du ahanzi eskuin muturrekoek zer egin zuten. Gerla egin zutenak bizirik dira oraino

Jean Louis LADUCHE Azkaingo auzapeza

Ezkerra nahiz eskuina, extremak aparte, ez dute aski elkar aditzen. Eta horrekin batera, bai batzuk zein bertzeak, ez dute intsegritatearen afera ongi eraman.

Momentu berean, Le Pen baliatu da intsegritateaz beti mintzatzeko, nola hiri handitan zenbaterako insegritatea den... Strasburgon, Lyonen, Parisen... automobil ainitz erretzen dituzten... eta hango jendea unatu dela pixkat, eta eman diotela bozka Le Peni besteri adbertentzia gisa.

Bertzalde, ikusi behar da ere ainitz jende ez dela joan bozka ematera, eta orai ikusi beharko da bigarren itzulian zer egiten duen. Beharbada ezkerreko jendearantz bitxi izanen da Chirac-en alde bozka ematea, baina, halere, jendea izitua da eta ez du ahanzia eskuin muturrekoek zer egin zuten. Gerla egin zutenak oraino bizirik dira eta oraino ez du ahanzia. Langeta bada halere, eta sozialista izan edo berdea izan nahiago dute eskuinari eman eta Frantziako libertateak osorik atxiki. Hemen erraiten den bezala, ez da bozka emanen ahal denari baizik ahal den hobinari. Etxean egotea bozarik eman gabe, hori, azkenekoa da. Zinez obligatua da boza ematera eta sentsu gehiagor ibili behar luke.

Ni oroitzen naiz, duela 25 urte Parisen bizitu nintzelarik, suhiltzaileek jausten ginela iskanbiletan su-emanen zirenak itzaltzera. Hori lehen ez zen ezagutzera ematen, baina orain bai.



EZKURRAko UDALA

APARTAMENTUA ERRENTAN EMATEKO

Enkantea egingo da, ahozko posturen bidez, alokatzeko Herriko Etxean dagoen apartamentu bat.

Hasierako prezioa: Hilabetean 90 euro.

Enkantea datorren maiatzaren 18an, eguerdiko 12:00etan egingo da Ezkurra Udaletxeko Aretoan.

Enkantean parte hartzeko 150 euroko bermea jarri beharko da.

Baldintza orria interesatuen eskura dago Udaletxeko Idazkaritzan.

Ezkurran, 2002ko apirilaren 30a.

• IRAKURLEAK MINTZO •

Lesakako Babes

Ofizialeko

Etxebizitzetxe buruz

Zenbait egunkaritan dagoeneko ateria da salaketa hau eta beharrezkoa iruditzen zaigu TTI-PI-TTAPAn ere agertzea lesakar eta inguruko herri guztiak jakiteko zergertatu den eraikitzen ari diren «VPO» edo Babes Ofizialeko Etxebizitzekin. Gertatu den guztia kontatzeko aldizkari guztia beharko genuke. Beraz garira joango gara eta labor labor guk gai guzti hau ikusten dugun bezala azalduko dugu. Badakizuen bezala Babes Ofizialeko Etxebizitza batzuk egiten ari dira eta 133.059 €tan (22.139.208 Pta) saltzen dituzte. Gure lehen salaketa etxebizitza

hauek duten prezioa da, kontutan hartuta Babes Ofizialeko Etxebizitzaren izenpean eraikitzen ari direla. Non geratzen da titulu horrek aipatzen duen babesa?

Horregatik Babes Ofizialeko Etxebizitzak direla erraten dutenean niri irri... edo negar egiteko gogoia ematen dit. Aipatu behar da etxebizitza eta garajea bakoitzak bere kontratua daukala eta lehena bakarrik sartzen dela Babes Ofizialeko Etxebizitzaren barruan. Baina etxebizitza nahi badugu garajea erostera behartzen gaituzte eta ez ahaztu honen prezioa 54.264 €koa (9.527.953 Pta) dela. Azpimarratu nahi dugu guk etxebizitzak behar ditugula eta batzuentzat behintzat ga-

rajea luxu bat dela. Hasiatik Babes Ofizialeko Etxebizitza batzuetara apuntatu ginen eta garaje hauek beste kontratu bat dutenez, Babes Ofizialeko Etxebizitzatik kanpo daude. Beraz, gure ustez, etxea lortzeko garajea erostera behartzen gaituzten momentutik gure eskubideak zapalduak daude. Ikusirik zer preziotan jarri diren etxebizitzak, batzuentzat Babes Ofizialeko Etxebizitzak dira irtenbide bakarra, baina gero konstruktoreek legea alde dutela nahi dutena egiten baidute, berriz ere behartuenak geratuko gara etxebizitzarik gabe. Horregatik uste dugu legeetan aldaketak egin behar direla berriz ere Lesakan gertatu dena ez

gertatzeko eta aipatu herri hontan etxebizitzaren gaia larria dela eta Herriko Etxeak zerbait eta abudo egin beharko duela, lesakarak jaio diren herrian bizitzeko aukera izan dezaten.

Iñaki IGOA eta bertze borts familia afektatu.

Eskerrak Goizuetako

Osasun Zentrotik

Goizueta, Arano, Leitza eta Areson egiten ari den tentsio arterialari buruzko ikerketaz esan behar da duela hiru hilabete Aranon eta Goizuetan hasi ginela. Gero, maiatzean eta gutxi gora behera iraila arte Leitza eta Areson jarraituko du. Ikerketa honekin, pertsonen tentsio arterialaren neu-

rri normalak zeintzuk diren jakin nahi ditugu. Horretarako, eskutitz baten bidez, kontsultan zita bat ematen dizuegu eta bertan tentsio arterialaren aparatu automatikoa nola erabili azaltzen dizuegu.

Goizuetan eta Aranon askok parte hartu du eta bere etxeetan lau egunez tentsio arteriala hartu dute. Lan hau edo «penitentzia», Aste Santuan Goizuetako gizon batek esan zidan bezala, oso ongi egin dute eta horregatik goizuetar eta aranoarguziei eskerrak eman nahi dizkizuegu. Era berean, esan nahi dizuegu, ikerketa bukatzen denean emaitzak azalduko ditugula, denok ezagutzeko. Goizuetako mediku eta erizainen partez, eskerrik asko.



LESAKA



APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE




616 513 491
Piti
ESKABAZIOAK
(Arantzaz)
3070 DONEZTEBE (NAVARRA)



Okindegia Jatetxea
Uxo

- Okindegian
- Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
- Jatetxean
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrilan erretako jakietan

Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea. Goxo-goxoa!



PAGOLA
TXISTORRAREN IZENA
© 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Txantrean Auzolan (43. zbk; 02-03)

Ezkurrako ikatzgilea

«14 edo 15 urtetarako mendian ari ginen lanean. Herriko koadrilak elkartu eta lana zegoen lekura joaten ginen. Eguraldiak laguntzen bazuen zazpi, zortzi edo bederatzik hilabete ematen genituen mendian, lanetik hurbil egiten genituen etxoletan. Hilabetearen behin edo jeisten ginen herrira, ez zegoen beste erremediorik dirua irabazteko».

Miguel TELLETXEA
Ezkurrako ikatzgilea
Txantrean Auzolan
aldizkaria 02-03

Bertsolari Txapelketa

«Gu ez gara aproposenak ezer esateko. Bakoitza berean egoten gara eta ez dugu saioa entzuleek bezainbeste gozatzen, baina Sustrai Colina txapeldunordea zela esan zutenean, nik Silveirari esaten nion "orduak, zu zara txapelduna". Orain, prentsa irakurri eta jendearekin egon ondoren, uste dut ez ginela gu izan harritu ginen bakarrik».

Estitxu AROZENA
Lesakako bertsolaria
ARGIA 02-04-28

• 11 GALDERA LABUR •

**Laxaro SALABERRIA** *Goizuetako ibiltaria*

Memoria freskatzeko galdera: Zenbat egunean egin zenuen Orreagatik Santiagorako Bidea?

Hamabost egunean.

Hurrengo bidaia nora eta noiz?

Berriz Santiagora noa, oraingoan maiatzaren 18an Garazitik aterata.

Santiagoako gain, zein ibilbide egin dituzu oinez?

Besteak beste, lau Jabierada, lau Itziarko Martxa, Amezketako Txirritaren ibilaldia...

Nola egin zinen ibiltaria 40 urterekin?

Beti gustatu zait ibiltzea eta azken urteotan gogor ekin diot kirol honi.

Esan diguzun Garazitik Santiagorako bidaia zenbat km. ditu eta zenbat egunean egin nahi duzu?

774 km.ko bidea da eta hamabi egunean egin nahi nuke, 60 km. tik goiti egunean alegia.

Marka zenbat denboran dago?

Ez dut uste markarik jasotzen denik. Hau ez da konpetizio bat.

Zer edo zer erakutsi al zizun Santiagorako Bideak?

Elkarrerik laguntzea.

Urtetan aurrera zoaz, nola aurkitzen duzu zure burua?

Gero eta bizkorrago.

Kaskagorra izateko nahitanahiezkoo al da ibiltaria izateko?

Ni ez naiz kaskagorra, baina hala ere dezente ibiltzen naiz.

Ibiltzeaz gain, zer egiten duzu zure denbora librean?

Baratzetan ari, parranda batzuk, irakurri eta lo asko egin.

Zein da zure ametssetako bidaia?

Kantabriko eta Mediterraneo itsasotz lotzen dituen bidea eginen nuke gustora.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL

AGENZIA

Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tifnoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak
ERREKALDE
ostatua
Tfnoa: 948630259 - BERA

© 948631076 • BERA

Harategia
Eztegara 3
Tfnoa: 948 630 198
BERA

Ioredenda
Albistur, 39-K
627542
LESAKA
• bitxikeriak •
• opariak •
• enmarkazioak •

KULTURA

Bidasoako Izokinaren elkartearen Argazki-rallya Etxalarren

Hemeretzigarren edizioa apirilaren 21ean egin zen

Joseba eta Nerea

Bidasoako Izokinaren elkarteak urtero Bidasoa ibaiaren inguruko herriak aukeratzen ditu bere argazki rallya egiteko eta aurtengoan Etxalar izan zen hautatua. Joan den apirilaren 21ean, igandea, 60 partaide ibili ziren herrian barrena goiz osoan argazkiak ateratzen. Antonio Mangas antolatzailerak erran zigun Sunbillan, Lesakan, Beran, Elizondon, Arizkun eta gure zonaldeko bertze hainbat tokitan ere antolatu izan dutela aurreko edizioetan, beti ere Gipuzkoako eta Nafarroako herriak lotzeko eta ezagutzeko asmoarekin.

Goizeko 9:30etatik 10:30ak arte egon zen zabalik inskripzio gune bat, partehartzaileak materiala (argazki karreteak), ibilbidea eta gaiaren berri izateko zegoena. Jesus Gorritz Etxarte lehendakariak adierazi zigun «aurten bertze urtetan baino par-



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Hainbat argazkilari ageri ziren Etxalarko karriketan, apirilaren 21ean Bidasoako Izokinaren Kofradiak antolatutako Argazki Rallyan parte hartzen.

tehartzaile gehiago izan dugu, eguraldiak lagundu digulako. Iruñetik, Irundik, Tolosatik, Hondarribiatik eta bertze toki askotatik ere etorri da jendea. Gehienbat heldua da baina gazteak ere animatu dira aurtengoan. Gu hagitz gustura gaude Etxalarra etorri den jende

guziarekin».

Enekoitz Urtxegi partehartzaileak aipatu ziguenez, «nik lehenbiziko aldia dut gisa honetako lehiaketa batean parte hartzen dudala. Hiru hilabetez egon naiz argazkilaritza ikastaro bat egiten eta gaur proba egitera etorri naiz, hermenengo giroa ikusi eta

suerte baldin badut ea sariren bat irabazten dudan».

Goiz osoa Etxalarren argazkiak ateratzen pasatu ondoren 14:30etan Irungo Bidasoako Izokinaren Elkartearen bildura ziren partehartzaile guztiak bazkari eder baten inguruan egun honi amaiera emateko.

ERREPIDEAK

Bera eta Endarlatsa arteko bidea moldatzeko proiektua idatziko da

ttipi-Ttapa

Nafarroako Gobernuak baimena eman dio Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamentuari N-121 errepidean, Bera eta Endarlatsa bitarteko tartea berritzeko proiektuaren idazketa lanak kontratatzeko. Lan honen aurrekontua 168.300 eurokoa da. Kopuru horretatik, 50.500 euro aurreko ordainduko dira eta gainerakoa, 117.800 euro, 2003. urteko Aurrekontu Orokorretik ordainduko da. Hain zuzen, urtebete baino gehiagoko kontratua delakoz behar zen Nafarroako Gobernuaren baimena.

Tarte honek 4 kilometro izanen ditu, Bera-ko saihesbidea akautzen den lekutik Endarlatsa-ko zubiraino. Hiru karril izanen ditu. 200 metro luze-ko tunela eta hiru zubi egin beharko dira.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneretik asteazkenera 9-13etara eta 15-19etara
- Ortzegun eta ortziralean, 8etatik 15etara
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

- ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713
- Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak



Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735 - 607 406781



BERA

Ikusmin haundia piztu du Hirigintza Planaren aurkezpenak

Maiatzaren 9an arkitekturekin solasteko aukera izanen da

Asier GOGORTZA

Apirilaren 22an ireki zenez geroztik herritar aunitz hurbildu da Kultur Etxean jarri duten Hirigintza Plan berriaren aurkezpena ikustera. Lurjabeak edo bertzerik gabe herria heldu den 10 urteetan nola eraldatu daitekeen ezagutu nahi duten herritarrek izan dira bertaratu direnak. Maiatzaren 3an arkitekturek Hirigintza Planaren aurkezpena egin zuten, eta ortzegun honetan, hilak 9, Planaren egileekin biltzeko aukera izanen dute interesatuek, horretarako lehendik ordua eskatu baldin badute bederen.

Erakusketaren egiturari dagokionez, lehen-dabiziko paneletan herriaren itxuraldatzea no-



ARGAZKIA: ASIER GOGORTZA

Hainbat jende bildu da heldu den 10 urtetarako Hirigintza Plana ikustera.

lakoia izaten ahal den ageri da, gaur egun nekazal eremu diren zenbaitetan etxeak eraikiko dira-eta. Ondotik, airetik ateritako argazkien bidez orain dela 20 urteko herriaren itxura

ikusten ahal da, baita gaur egun duena ere. Berako eremu guzian dauden arbola landaketan mapa ere egin dute. Horrez gain, Beratik Enderlatsaraino doaien bidezatiaren konponke-

taren planoa ikusgai jarri dute.

Interesatuek maiatzaren 15a arte izanen dute erakusketa bisitatzeko astia, goizeko 10etatik 1etara eta arratsaldeko 4etatik 7etara.

FLASH

Eneko Zestau Lugora eraman dute

Eneko Zestau eta Xabi Resano gazteak espetxez aldatu zituzten apirilaren hondar eguneetan. Deus abisatu gabe Madriletik Lugoko Monterroso gartzelara eraman dituzte bi presoak. Senideak arrenkura agertu dute trasladoa egin zuten bitartean 5 egunez ez zutelako euren egoerari buruzko berririk izan, baita urrunketa honekin ere bisitak egiteko zailtasun gehiago izanen dutelako ere.

Euskararen aldeko ibilaldia

AEK, Oinarriak, EHE eta euskararen aldeko bertze zenbait taldek antolatuta, maiatzaren 11n Euskal Herri osoan Euskararen Ofizialtasuna aldarrikatzeko martxa bat abiatuko da Enderlatsa, Irun eta Hendaiatik. Ibiltarien hiru zutabeek bat egiterakoan ekitaldia egingen dute.

“Gorria” pintura erakusketa

Maiatzaren 17a bitarte Jamotenean zabalik izanen da Gorria izeneko pintura erakusketa. Bi pintore eta bi antzerkigileek prestatutako ikus-kizun berezi baten zatia da margo erakusketak.

Espidobaitako batzarra

Maiatzaren 18an urteko batzarra eta ondotik afaria egingen dute elkarte bazkideek.

EHNA

Udalak ahobatez onartu du Euskal Herriko Nortasun Agiria tramitatzeak pausuak ematea

EHNA edo Euskal Herriko Naziotasun Agiria egiteko zerbitzua jarriko da laster Berako Herriko Etxean. Udalbiltzak proposaturiko mozioa ahobatez onartu zuten Udaleko talde politiko guziek, Batasunak, EAK eta EAJk. Erran

behar da azken bi talde hauek, Beran ez bezala bertze zenbait Udaletan atzera bota dutela mozio hau.

Horrela bada, maiatzetik aitzinera herritarrek euskaldun nortasun agiria tramitatzeak eska-

ria egiten ahalko dute herrian bertan.

Honen harira Udalbiltzak berta egun bat prestatu du maiatzaren 4rako Beran. Ekitaldi politikoaz gain bertze zenbait ospakizun ere egingen dira.

belardenda
Mediku naturista
kontsulta
Masajista
Legia I, behea • BERA • © 948 630652

bortzirudi
BERA
FOTOKOPIAK • ENQUADERNAZIOAK • PLASTIFIKAZIOAK • FAXA • E-MAILA • SKANNERIA
PAPERTUTIA
DISEÑO GRAFICO • IMPRESION LANAK • SERIGRAFIA
AMGAZKI MUNTAK
EPIROTULOAK • PUBLIZITATEA
Estogara 25 behea • Tel.-Faxa: 948 63 15 21

© 948 631462
Altxate I • BERA
Xirail

LESAKA

Azkain eta Lesakaren arteko senidetzea onartu du Udalak

Nafarroa eta Lapurdiko herriak direla agertzea eskatu zuen Batasunak

Aitor AROTZENA

Lesaka eta Azkain udalerrien arteko harremanak finkatzen dituzten «Anaitasun Estatutuak. Anaitasunaren konpromezua» agiria onartu zuen Udalak, EA-PNVren aldeko botuekin eta Batasunako abstentzioekin. Batasunak senidetzearen aldekoa dela adierazi zuen, baina «Anaitasun Estatutu hauen sarreraren aipatzen da Lesaka Espainia dela eta Ascain Frantzia, eta hori ez da modu egokia Euskal Herriko bi herrien arteko harremanak agiri baten bidez finkatzeko. Guttienez Lesaka (Nafarroa) eta Azkaine (Lapurd) jartzea eskatuko genuke».

Alkateak zera erantzun zuen: «Politika mailara igo ezker, izan daiten eskaera hori ongi egotea. Baina Europako laguntza lortzeko ezin da onartu anaitasun bat estatu bereko bi herrien artean. Horregatik ageri dira estatutuaren bies-tatu horiek». Ascain «C»rekin idazteari buruz, «momentuz lparaldean toponimia ofiziala ez dela aldatu» erran zuen Jose Luis Etxegaraik.



ARGAZKIA: PEPITTO ALTZUGARAIAK UTZIA

Hainbat dantzari ikusteko modua izan zen apirilaren 21eko Tantirudantza jaialdian. Kanpotik etorritakoei «Zubigainekoa» eskaini zuen herriko Tanti-mairu taldearekin batera, Berako Gure Txokoa, Faltzesko Makaia, Lasar-teko Erketz, eta Lakuntzako Elai Alai taldeak izan ziren herrian.

ERREPIDEAK

Berrizaun-Bera errepide berriak kaltetutako herritarrei Herriko Etxeak ez diela infor-matu erran du Batasunak

N-121 errepidean, Berrizaun eta Bera arteko zatiaren proiektuak zen-bait lesakarren lur jabetzak kaltetu-ko dituela eta, Herriko Etxeak jabe horiei proiektuaren berri azaltzeko bi-lerarik egin ez duela salatu zuen Ba-tasunak azken udal batzarrean. Al-katearen erranetan, Nafarroako Go-bernuak Alternatiba proiektua ber-terik ez du azaldu, ez obra proiektua, beraz, «ez da bereizia oraindik

errepide horrek Lesaka ukituko duen ala ez». Gainera, «zaila da banaka-banaka bi mila terdi pertsona baino gehiagoren arazo pertsonalak jaki-tea, aitzinetik udal bulegoetan sarre-ra egin ez badute». Batasunak erran zuenez, «jende guttik irakurtzen ditu boletinak eta honelako al-dizkariak, eta zaila izaten da pertsona bakar ba-tentzat han erraten den guzia inter-pretatzea».



PERTSONAIA

Miren RUBIO ITURRIA

«Nire ipuinekin sari gehiago ere lortu ditut»

Gazteei zuzendutako Eibar Hiriko XVII. Ipuin Lehiaketa irabazi du Mi-ren Rubio Iturria lesa-karrak. 14 eta 17 urte bitarteko kategorian, euskarazko lanetan le-hen saria irabazi zuen Mirenek, «Loreak ere zimeldu egiten dira» idazlanarekin. «9 orrial-deko ipuina da eta tra-tu txarrak jasotzen di-tuen nerabe baten his-torioa kontatzen du» dio Mirenek. Ez da bere idazlanekin jasotzen duen lehen saria: «Iaz-ko ekainean Nafarroan lehen saria jaso nuen. Nik jakin gabe aurkez-tu zuten 29 orrialdeko nobela ttiki bat eta sa-ri nagusia eman zida-ten eta abenduan Hon-darribia Hiria saria ere irabazi nuen». Heldu den urtean 18 urte bete-ko ditu eta helduen ka-tegorian parte hartuko du lehiaketetan: «Zaila izanen da sariak lortzea, baina idazten segituko dut, hori seguro».

KOXKILA OSTATUA



Zarandia, 4 - LESAKA

kixkur
ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIN
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANIA
janaridenda
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
Zafra
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

ETXALAR

Joseba Beola nabarmendu zen Usategietako V. Auto igoeran

Jon Iparragirre "Katton" eta Joseba Genuak ere paper bikaina bete zuten

Joseba eta Nerea

Orain arte abuztuaren bukaeran egin den Usategietako Auto Igoera aurtengoan apirilaren 21ean egin zen. 5. edizio honek herriko auto gidarientzat iazko edizioan bezain emaitza onik utzi ez bazuen ere, Joseba Beola, Jon Iparragirre "Katton" eta Joseba Genua lehenengo hamabi postuetan sartu ziren. Gainera, Joseba Beolaren partehartzea nabarmentzekoa izan zen hiru sari eskuratu baitzituen: Klasifikazio orokorrean seigarren postua, bere kategorian lehenengo saria lortu zuen eta Junior mailako txapelduna ere izan zen. Kattonek sari bakarra lortu zuen, bere kategoriako bigarrena. Joseba Genuak berriz, igoeran arazoren batizan bazuen ere, bere kategoriko hirugarrena eta juniorretako bigarrena gelditzea lortu zuen.

V. Usategietako auto igoeraren irabazlea



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Joseba Genua, Jon Iparragirre «Katton» eta Joseba Beola, gustora Usategietako Auto Igoeran eskuratutako sariekin.

Pantxo Egozkue izan zen, bere Formula 2 BMW kotxearekin 03:37,17ko denbora egin baitzuen. Joseba Beolak seigarren postua 03:52,60 denborarekin, Kattonek hamai-kagarren postua 03:58,35ekin eta, azkenik, Joseba Genua hamabigarrena gelditu zen 04:01,12rekin.

Eguraldi ederrak lagundu zuen eta horrek jende andana hurbila-

razi zuen Usategietako bihurtune eta belati bazterretara. Hala ere, erran behar da kotxe batek karrateratik atera eta barrera batzuen kontra jo ondotik igoera ordu bezetaz moztua gelditu zela. Hala ere, ez zen inolako ezbeharririk izan eta antolatzaileek errandakoaren arabera hagitz arrakastatsu joan zen aurtengo edizioa, Guardia Zibilarekin arazo batzuk izan bazituzten ere.

Usoa nekazari kooperatibaren batzar orokorra

Apirilaren 27an Usoa nekazari kooperatibak urteroko batzar orokorra egin zuen Lagun Toki elkartearen Juntako kideak eta hainbat bazkide elkartzu ziren eta aurtengo juntan aldaketa nabarmenak egin dituzte. Alde batetik, lau urtetik behin berritzen diren bodekalen aldaketa, lau lagunek utzi zuten beraien

kargua, Xoraxuriko bordako Mariasun Olagarai, Landaburuko Bordako Gerardo Danborienak, Kattoneko Jose Luis Iparragirrek eta Saindune bordako Manuel Aranburuk. Bokalakin batera, bi urtetik behin aldatzen diren 3 bigilante atera ziren juntatik: Benantzio Elizagoen Beheko Etxekoa, Arrineko bordako Jesus Mari Irigoien eta Baxtanen bordako Jose Mari Danboriena. Juntan sartu behar diren bazkideen berri ezin dugu eman, ez baitzeuden zehaztuak hau idazterakoan. Eta urteroko batzar hau eskaera eta galderekin bukatu zen.

Batzarra eta gero, gaueko hamarrak alde- ra, eta ohitura den bezala, bilerara hurbildutako bazkideek Anttonion afari eder batez gozatzeko aukera izan zuen 2002 "Usoa" Nekazari Kooperatibako Batzar orokorrari giro ederrean akabilla emateko.

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • © 948630083 BERA

ANSONEA jatetxea
Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 • © 948 631155 • BERA

LEGARRA

Prentsa	Fax publikoa
Liburuak	Plastifikazio
Tabakoa	a
Opariak	Enkuadernazi
Kukuxumusu	o
kamisetak	lanak
<i>Egunero</i>	lanak

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •

HERRIKO
JATETxea

Albistur, 10 • 948 63 70 30
Tfnoa: 948 63 70 30

IGANTZI

Herria ezagutuz

Igerilekuak zaintzeko proposamenak maiatzaren 10a arte bilduko dira

Tomasa Trantxek berrogeita hamar urte bete ditu misiotan

Oskar TXOPERENA

Aste honetan berean, maiatzaren 10ean, arratsaldeko 14:00tan, akautuko da 2002ko denboraldian igerilekuen zainketaz ardurtzeko proposamenak aurkezteko epea. Horretaz bada, informazio gehiago behar duenak Herriko etxera jo dezala, han baitago baldintza plegua.

Mendi bizikleta

Bizikletazale talde batek proposamena egin zion Biltoki Elkarteari Nafarroako jauntsiera txapelketa bertan antolatzeko. Erroka polita iduritu zitzaion elkarteari eta baimena eskatu zion Herriko etxeari. Lan handia egin behar da horrelako proba bat antolatzeko, baina, azkenean Igantzin egingen baldin bada, Fraindik herrira izanen da ibilbidea, kilometro pare bat ingurukoa. Aukera ederra izanen dugu Xabier Telletxea herrian nola ibiltzen den ikusteko.



OSKAR TXOPERENA

Aste bete eman dute argazkian ageri diren 6. mailako 6 ikasleek Mallorcan, estatuko bertze zenbait eskoletako haurrekin batera, "Escuelas viajeras" programaren barnean trukaketa egiten. Apirilaren 22an atera ziren herritik ordukoa da argazkia- eta 29ko ilunabarrean itzuli. Ez da lehendabiziko aldia Igantziko Eskolak horrelako proiektu batean sartzeko aukera duela, orain dela lauzpabortz urte maila bereko haurrak Gaztela aldean izan baitziren.

Tomasa Trantxe

50 urte bete berriak ditu Tomasa Trantxek Errepublika Dominikarrean misiotan. Aisa erraten da, gero. Tradizio handia du Trantxe familiak misiotan, bertze bi ahizpa ere monjak baitira: Frantzian da-

goen Romana eta Zaragozan, berriz, Mercedes. Orain dela aste pare bat diru bilketa antolatu zen parrokian Tomasa dagoen lekura bidaltzeko.

Goizueta

Apirilaren 20an egin zu-

ten urteroko bisita Goizuetara herriko mendizale eta ez hain mendizaleek. Eguraldi zoragarriarekin, 8:00etan abiatu ziren eta 13:00etan ailegatu. Arratsaldean patxadaz hartu zuten, etxera ailegatu orduko 23:30ak ziren eta.

Larru fabrika

XIX. mendearen hasieran larru fabrika izaten zen Alleziratik behitxeko, Matxiturri errekararen ondoan. 1881eko Martin Belarraren eskriturek orduan oraindik zutik zegoela argitzen digute eta bere kokapena zehatza ere eman: «antigua fábrica de curtidos (...) tiene piso bajo y primero (...) por este con labrante de Allecira y por sur con la regata de Machichurri».

Ordurako, ordea, aspaldian itxita edo guttienez lanik egin gabe egon behar zuen, 1822rako erratan baitzuen Francisco Belarra bere jabeak —«fabricante de curtidos»— ixteko zorian zegoela: «esta fábrica dice su dueño ba a paralizarse (...) solo hay un zapatero y aún este no trabaja continuamente y lo demás se gasta en estos pueblos de la montaña».

Argentinatik larrua ezin ekarria eta Lesaka eta Beratik erosi behar izatea aipatzen ditut jabeak fabrika ixteko arrazoiak emateko orduan: «los estorbos de la mar son la causa del subido precio».

Gaur egun ez dago inguru horretan fabrikaren aztarnarik ere.

ATM S.A.

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantziko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

EKAITZA

Hostala • Kafetegia

Gelak TB eta bainuarekin

Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

Zure ingurua klase guztiko insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.

BERA DESINFECTACIONES

☎ 948630155

BERA

ARANTZA

Zioren taldeak Sortzen-Ikasbatuaz elkartearen besta kantuz jauntzi du

Apirilaren 24an Iruñean grabatu zuten kantua taldek eta eskolako umeek

Nerea ALTZURI

Sortzen-Ikasbatuaz elkartek urtero bezala besta eguna antolatu du. Ekainaren 9an Iruñeko Takoneran ospatuko da euskal irakaskuntza eskoletan bulkatzeko lanean ari den elkartearen jaia.

Egun hau iragartzeko kantua egiteko asmoa izanda, Zioren taldeari hiru bertso zahar musikatu zitzaizkion elkartek. Taldeek baiezkoa eman eta apirilaren 24ko arratsaldean grabatu zuten kantua, eskolako haurrak lagun zituztela. Kantuaren letra XIX. mendeko hiru bertsoek osatzen dute eta doinua gaurkoa da. «Bertso doinu zaharra ez dugu hartu, baina melodia berri bat jarri diogu» erran digu Amaia Telletxea taldeko kantariak.

Eskolako ekitaldia denez, herriko ikasle batzuk ere parte hartu dute grabazioan: «probertuz eskolen jaia dela, gure taldeaz gain,



ARTXIBOKOA

Zioren taldearen hasierako argazkia. Iñigo Etxepare lesakarra falta da.

hau da, gure ahotsez eta gure tresnez gain, ume batzuk sartzea pentsatu genuen. Orduan, Arantzako haur batzuk parte hartu dute koroak egiteko» gaineratu zuen Telletxeak berekin izandako solasaldian.

Sei orduz aritu ziren jotake lanean grabazio estudioan eta lau minutu terdiko kanta izanen

da karrikan maiatzaren erdialdetik aitzinera.

Gustora gelditu ziren grabazioarekin Zioren taldeko lagunak: «Bai, kontent gaude, eta gainera eskertu behar dugu Sortzen-Ikasbatuaz, talde ezagun bati eman beharrea lan hau, hasieran gabiltzan holako talde ez hain ezagun bati eman digutelako auke-

ra. Beti hori ere pozgarria da» erran zigun Amaiak.

Ekainaren 9ko besta hortan, gainera, «Nafarroa hitza dantzan» diskako talde guziek euren kanta joko dute. Zioren taldeak, berriz, «Gure patxarana» eta aipatu kanta berri hau taularatzen izanen da. Uda aldera, beharbada, ma-

ketatik diskarako pautua eginen dute musikariek.

Herri Kirol Jolasen Finala

Aintzineko alean iragarri bezala igande honetan, maiatzaren 12an, Nafarroako Herri Kirol Jolasen finala izanen da herriko frontoian. 11:00etatik aitzinera paratua da hitzordua. Emaizta onak eskuratu dituzte aranztar gazte txoek proba konbinatu txapelketan. Hau idazterakoan, haur mailakoak jokatu dituzten hiru saioetan gailendu egin dira, lehen postua eskuratuz. Kadete mailakoek, berriz, pixkanaka hobera egin dute. Lehen bi saioetan hirugarren izan ondotik, apirilaren 28an Berriozarren egindakoan bigarrenak izan ziren. Ea igandeko txapela lortzeko borrokan sartzen diren!

Heldu den alean xehetasun gehiago izanen dituzue berri honen gain, luze eta zabal.



TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIURUA-ERROTULAZIOA

Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorak • Igerilekueko sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...



☎ 948 63 10 03

Fax: 948 63 10 03

Alkaiaga Ind. • Baldrin, 8 • LESAKA - BERA

PERTSIANAK

ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK



OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

SAROB

okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA





SUNBILLA

EHNEko idazkari nagusia izateari utzi dio Mikel Petrirenak

4 urtez bete du kargua eta 8 urtez lehendakari izan da Nafarroan

ttipi-ttapa

Sunbillako Altsupereako Mikel Petrirenak Nafarroako EHNE sindikatuko idazkari nagusia izateari utzi dio, apirila bukaeran nekazarien sindikatuak egin zuen 4. Kongresuaren ondotik. Petrirenak lau urte eman ditu kargu honetan eta aitzinetik zortzi urtez lehendakaria izan zen. Altxupereakoak adierazi duenez, «*globalizazioa dela eta momentu txarrak pasatzen ahal ditugu, baina EHNE argi dugu Nafarroako nekazaritzak eta abeltzaintzak etorkizuna baduela*». Nafarroan dauden 8.500 abeltzain eta nekazariak mantentzeko edo gehitzeko borrokatuko dutela aipatu du Petrirenak, «*horrek familia esplotazioen egitura eta herri ttiketako bizitza eta etorkizuna mantenduko dela erran nahi baitu*».

Fermin Irigarai izanen da Mikel Petrirena ordezkatzuko duena. Izan ere, laugarren kongresu honen berrikuntza nabarmena ekarri du Nafarroako EHNE sindikatuaren zuzendaritzara. Nafarroan agertu zenetik 16 urte bete ditu sindikatuak. «*Erakunde gaztea izan arren, ongi sartu da Nafarroako nekazarien artean, sektorean %34ko ordezkartza baitu eta gehiengoa Idiazabal, Erronkari eta nafarroako Aretzea izendapenetan*».

ru urr zt n s z l st



tuzun urr z t n
nts tz n uzu

t z

«*Irigarai, berriz, SEI urteko lehen aldiz zuzenduko du Nafarroako EHNE sindikatuak. Kongresuaren ondoren, Petrirenak zuzenduko duen sindikatuak, baina EHNE argi dugu Nafarroako nekazaritzak eta abeltzaintzak etorkizuna baduela*».

G r r n l z l s u
z u z r

NAFARRAK
RUR L KUTXA

MALERREKA

809.034 euroko aurrekontua izanen du aurten Elgorriagako Udalak

577.229 euro inbertsioetara bideratuko dira, gehien bat Bainuetxearen proiektura

ttipi-ttapa

Elgorriagako Herriko Etxeak 809.034,20 euroko diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurten, martxoaren 4an egindako udal batzarrean onartutako aurrekontuaren arabera. Diru sarrerei dagokienez, 630.408,77 euro transferentzia eta kapital sarreraren bitartez lortzea espero du Herriko Etxeak, 72.121,45 zergen bidez eta 63.463 euro transferentzia arrunten bidez.

480.000 EUROKO INBERTSIOA BAINUETXERAKO

Gastuen arloan, 577.229,62 euro, kasik 100 milioi pezeta inbertsioetara bideratuko dira. Inbertsio hauen artean, gehiena Elgorriagako Balneario edo bainuetxearen proiektura bideratuko da, 480.000



ARTXIBOKOA

Aste honetan jasotzekoa dute Elgorriagako udaletxean Bainuetxearen behin betiko proiektua. Aurrekontua 1.600 milioi pezeta ingurukoa da (9.616.194 euro). Behin onarpena eman ondotik, lanak lehiaketara aterako dira eta gero, urte terdi edo bi urte kostako da egitea.

euro inguru. Jose Miguel Galarregi alkateak TTIPI-TTAPARI jakinarazi dioenez, abudo jasoko dute behin betiko proiektua. Behin proiektu hau

onartuta, lanak lehiaketara ateratzea eta egitea bertzetik ez litzateke geldituko. Galarregik adierazi duenez, «urte terdi eta bi urte artean

joanen dira Bainuetxea egiten. Proiektu handia da, 1.600 milioi pezeta-koa eta denborajoen zaigu akitu aitzinetik». Baina ez da aurten au-

rreikusia duten inbertsio bakarra. Mendi lanetarako 36.000 euro inguru bideratuko dira eta herriko tresnendako ur depositoaren inguruan biltegi bat egiteko 30.000 euro gastatuko dira. Pilotalekuan ere moldaketa lanak egin nahi dira eta 9.000 euroko aurrekontua izanen da horretarako. Bertze proiektu tikiagoak ere badituzte. «Adibidez, oinezkoendako bi-deak moldatu nahi dira, Doneztebe eta Ituren aldera, balnearioaren ingurutik pasatuta, milioi bat pezetako aurrekontuarekin». Honelako bertze bizpahiru lan tiki ere sartu dituzte Elgorriagako udal aurrekontuan.

Bertze gastuen artean, 76.065,93 euro ondasun arruntak eta zerbitzuak ordaintzeko erabiliko dira.

BERTIZ

Bertizko Turismo Bulegoaren ondoko denda hartzeko lehiaketa egingen da

Proposamenak maiatzaren 14a baino lehen aurkeztu behar dira

ttipi-ttapa

Bertizko Turismo Partzuergoak lehiaketara atera du Bertizko Turismo bulegoaren ondoko dagoen artisau dendaren adjudikazioa. Denda urtebete eta zaz-

pi hilabeterako hartuko da, 2002ko ekainaren 1etik 2003ko abenduaren 31a arte, baina bertze urte bat edo birako luzatzen ahal da. Eskaintza ekonomikoak nahiz aktibitateenak

Bertizko Turismo Partzuergoko bulegoan aurkeztu behar dira maiatzaren 14ko 14:00ak baino lehen. Baldintza plegua Turismo Partzuergoan eskuratzen ahal da (Tel: 948 592323).



TTIPI-TTAPA

Bertizko Jaurreiriko Natur Parkean denboraldiko 4.840 lore ezberdin landatu dira. Aitzinago, ezpel ondoak, azaleak eta kameliak ere jarriko dira.

ttipi ttapa

325. zenbakiarekin banatua

Herriz herri, bestaz besta

Ohitura zaharrek
eta ekitaldi
modernoenak
uztartuak
lehendabiziko
bestetan



Salbatoreak Irurita eta Urdazubín



Maiatzaren
8tik 12ra

Iruritako egitaraua egunez - egun

Asteazkena 8 Bezpera Eguna

12:00etan Altxaferoa, kalejira herriko trikitilarien esku eta ezkil jotzea. **20:00etan** ezkil jotzea. **21:30etan** Baztanzopak. **24:00etatik 4:00etara** Mozorro dantzaldia IRUÑABAND taldearekin (Saria izan da).

Ortzeguna 9 Salbatore Eguna

10:00etan kalejira herriko trikitilarien esku. **11:00etan** Meza Nagusia (herriko koroak abesturik). **12:00etan** herriko dantzarien erakustaldia. **13:00etan** herrikoentzat hamaiketakoa. **17:00etan** herri kirolak. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia IRUÑA BAND taldearekin. **22:00etan** mutildantzak. **24:00etatik 3:30etara** dantzaldia IRUÑA BAND taldearekin.

Ortzileria 10

Haur eta

Jubilatuen Eguna

10:00etan kalejira



HERRIKO NESKA DANTZARIARIK: GOITIAN M^{te} TERESA AMORENA, MARI KARMEN OLONDRIZ, JUANA MARI ETA MILAGROS ALMENAR. BEHEITIAN, MAITEXA JAUN SARAS, MARI JOSE URTASUN, MARIA JESUS RIPA ETA XOLE JAUN SARAS.

RIAU RIAU txaranga eta trikitilarien esku. **11etatik 13:00ak arte** haur jolasak. **14:00etan** oilo jatea haurrendako, jubilatueko bazkaria Olari jatetxean eta

Baigorri gazteendako. **15:30etan** haur jolasak. **18:30etan** kalejira txarangarekin eta txokolate jatea. **20:30etatik 22:00etara** dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin.

22:00etan mutildantzak. **24:30etatik 3:30etara** gaupasa JOSELU ANAIK taldearekin.

Larunbata 11
12etan RIAU RIAU txar-

angarekin kalejira. **14:00etan** herri bazkaria txarangak lagundurik. **18:30etan** nesken Aranabiako VII. Paleta txapelketaren finala. **20:30etatik 22:00etara** dantzaldia IRATXO tal-

SUMINISTROS YANCI



- Iturgintza eta kalefakzio materialaren salmenta
- Iturgintza instalazioak
- Gas eta Gasoil berogailuak
- Erregailuen moldaketa eta mantenimendua
- Moble osagarriak eta bainurako manparak

Zaldubia Poligonoa - IRURITA - Tel: 948 580109 • 948 452464

BAZTAN MOTOR, S.L.

Mekanika, elektrizitatea, txapa eta pintura
Auto berri eta erabilien salmenta



Zaldubia • IRURITA
Tel. eta Faxe: 948 452 119

ARKUPE GOZOTEGIA

IRURITA ☎ 948 452021

ELIZONDO ☎ 948452393

Tarta bereziak eta Etxeko izozkiak

dearekin. **22:00etan** Mutildantzak. **1:00etatik 5:00etara** gaupasa IRATXO taldearekin.

Igandea 12

10:00etan XLIX. Txirindulari Salbatore Saria. **10:30etan** Meza Nagusia. **11:45etan** kalejira txarangaren esku. **17:30etan** IKUSGARRI taldearen esku motozerraz zurezko irudigintza. **19:00etatik 21:00etara** dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin. **21:00etatik 22:15etara** LOS CHARROS mariatxiak. **22:15etan** Mutildantzak. **00:30etatik 3:30etara** dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin eta besten akabaila.



GOITIAN MUTIKO DANTZARIAK: ANTONIO JAUN SARAS, MINELL ESCUDERO, JOSETXO ARRAZTOA, OTERMIN, SANTOS PRIM ETA JESUS MARI AZKONA. **IRURITAKO GAZTEAK SOKATIRAN:** MARTIN JAUN SARAS, JAVIER URTASUN, ARTUTO ITURRALDE, ANGEL ETXENIKE ETA PATXI AMORENA.




Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 948 580 645

OLARI

Jatetxea



Tfnoa: 948 45 22 54

IRURITA

* Jatetxea haize egokituarekin hornitua

A ZER POXPOLIN PAREA,
DOTORE-DOTORE JANTZI
ETA DANTZARA ATERATZEKO
PREST DUELA URTE BAT-
ZUETAKO SALBATORE EGU-
NEAN.

RIPA harategia

*Ongi pasa
Salbatoareak!*

☎ 948 452073

Karrika Nagusia
IRURITA

ttipi-ttapak
Salbatore zoriontsuak
opa dizkie
iruritar eta urdazubiar guziei

ETXELEKUA



ETXEKO BEHI eta ARDI GASNA

Zugarramurdiko karretera,
 ☎ 948 599169 URDAZUBI

BYRKAITZEA

ostatu - erretegia

Ongi pasa herriko bestak!

Zugarramurdiko bidea, 3 km.

☎ 948 599280 • URDAZUBI

Venta JUAN FELIX



Ostatua
 Oroigarriak
 Janaridenda

Tel. 948 599 052 • DANTXARINEA

ANASTASIA OSTATUA

Janari Denda

Tfnoa: 948 59 90 27 - URDAZUBI

ARRETXE BENTA

Tabakodenda • Janaridenda

Jantzidenda

Zapatadenda

Tel. eta Fax: 948 599015

DANTXARINEA ESTAZIO ZERBITZUA

Tel.00 34 948 599250

DANTXARINEA

ORDOKI
ALTZARIAK

Estilo ugariko mobleak
 kortinak, lanparak... eta etxerako osagarriak
 Larunbat goiz eta arratsaldez irekia

ERAKUSKETA: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637780
 NA-31780 **LESAKA**

Erakusketako mobleetan
 Udaberriko eskaintzak
 aprobetza itzazu



Urdazubiko egitaraua egu- nez - egun

Asteazkena

Maiatzak 8

19:30etan futbito partidua. **20:00etan** suziariak besten hasiera emateko. **21:30etan** afaria MODESTOK alaiturik.

Ortzeguna

Maiatzak 9

11:00etan Meza Nagusia. **12:00etan** frontoian aperitifa gaiteroek alaiturik. **16:00etan** pilota partida Urdazubiko gazteen artean. **16:00etatik 20:00etara** haur jokoa. **20:30etatik 22:00etara** dantzaldia ETXABE Anaiekin. **22:00etan** paellada herriko frontoian. **00:30etan** gaupasa ETXABE anaiekin.



AHATE JOKOA GALDU EGIN DA URDAZUBIKO BESTETAN. GOITIAN, DUELA 60 BAT URTEKO ARGAZKIA. 1. ORRIKO ARGAZKI HAN-
DIAN, JOSE OTEGI, SARIAREKIN.

Ortzilarea

Maiatzak 25

13:30etan Ugarana Andre Elkarreak antolatutako bazkaria herriko frontoian. **15:00etan** dianak Dantxarinearain Modestorekin. **16:00etatik 20:00etara** haur jokoa.

M^a Cruz Plaza Harategia

Tfnoa: 948 599008 - URDAZUBI

SANTIAGO VILLARES

GARRAIOAK

- Luzerna
- Agotza eta lastoa
- Luzerna - pentsu granulatuen SALMENTA eta EXPORTAZIOA

© 948 59 91 34
URDAZUBI

ZUBIONDOA



Tel: (0034) 948 599 041 / DANTXARINEA

Ostatu
Autozerbitzua
Oroigarriak

Indianoa Baita

Jatetxea - Hostala

Ongi pasa herriko bestak

Tfnoa: 948 59 90 21 - URDAZUBI

ARMUA Jatetxea



Zugararmurdiko karreteran, 3. km
© 948 59 91 31 - URDAZUBI

IRIARTEA BENTA

Chez Peyo

Ostatua - Autozerbitzua - Larrua...

Tfnoa: 948 599049 - DANTXARINEA • URDAZUBI



Antzanborda

Estankoa
Ostatua

Tel: (0034) 948 599039
31710 URDAZUBI



24:00etan punky kontzertua: Kaotiko, TxapelPunk, Ufestuek eta DJ'ak.

Larunbata 11
13:00etan Palanka

botatzea (irabazleak zikiroa dohain).
14:00etan Zikiro jatea LARRAKAITZ txaragak alaiturik. **16:00etatik 20:00etara** kalejira Urdazubiko ostatuetan

LARRAKAITZ txaragarekin. **20:00etan** jokuak ausartzen direnentsat. **00:30etan** gaupasa TRIKI TA KE taldearekin. **6:00etan** edariak prezio erdian.

Igandea
Maiatzak 12

19:00etan antzerkia herriko plazan.
20:30etan rifa zozketa. **22:00etan** «Pobre de Mi».

Kategoria bereziko hostala

IRIGOIENEA

Tel.: 948 59 92 67 • Faxa: 948 59 92 43
URDAZUBI

Benta - Jatetxea - Souvenirs - Janaridenda



PATXI

DANTXARINEA - faxa 948 599384 - © 948 599106

MENTA
Jatetxea

Xaretako
lurraldean

© 948 59 90 20

DANTXARINEA
URDAZUBI

Merkataritza
gunea

LAPITXURI

Zerbitzurik onena Lekurik onenean
DANTXARINEA • Telf. (0034) 948 599 093

BAR - SNACK - TAPAS
HABANAKO ZIGARROAK INPORTAZIOAN
MARKA GUZIETAKO ZIGARRETAK

Janaridenda - Harategia
Frutak - Lekaleak
OROIGARRIAK

Zure gaurik onenak musikarik onenarekin DISKOTEKAN pasatzera gonbidatzen zaitu, girorik onenean eta lekurik onenean. Zeonek ikus ezazu. Esperoan gaude.



AITZINEKO ORRIALDEAN, ZIKIRO-JATEAREN ARGAZKIA, DUELA 45 BAT URTE:
JOXE IRIBARREN, MIGUEL AZKARRAGA, MARTIN ITURRIA, JUAN ARBURUA,
JAVIER APEZTEGIA, JOSE TOMASENA, MARTIN ELORGA, GREGORIO MALDA,
MIGUEL SARRATEA, JOSE MARI PLAZA, JUAN IRIGOIEN, PEPE BLANCO,
GABRIEL URTIZBEREA, MARTIN, MIGUEL JAIMERENA, JOSE OTEGI, ANTONIO
ORGANBIDE, CEFERINO BLANCO, PABLO AZKARRAGA ETA JOSE
DIHARASARRI. AITZINEKO ORRIALDEKO GUZI HORIEK BESTA EGITEKO NORBAITEK
ZIKIROA PRESTATU EGIN BEHAR, ESKUINEKO ARGAZKIAN AGERI DEN BEZALAXE.
BEHEITIAN, NARCISO MIHURA ZENA ETA LAGUNTZAILE BAT, XEXENKOA FERIARA
ERAMATEN.



Faustino ETXABE Tailerrak

Autoen konponketa

Besta on batzuk pasa!

☎ 948 599038 • ZUGARRAMURDI

Iosune ileapaindegia

Gizon eta emakumeendako
ILEAPAINDEGIA • SOLARIUM

☎ 948 599028 • URDAZUBI

Zure publizitatea

ttipi-ttapan

948 63 11 88

Benta
 Ostata • Jatetxea

mikelenborda



Tel: 0034 948599045
 31712 DANTXARINEA



IKABURUA

Ostatu - Jatetxe - Erretegia

☛ Jostalekua haurrentzat
 ☛ Terraza estalia

Lezeetatik 50 m.tara

☎ 948 599 222

URDAZUBI

Rosa Mentaberri

Ileapaindegia

☎ 948 59 91 29 - DANTXARINEA • URDAZUBI

**Venta
 Panta**



Tabakodenda
 Ostata
 Janaridenda

☎ 0034 948 599012
 DANTXARINEA

JOSENEA

**Zerbitzu
 Estazioa**

*Besta
 ederrak
 para!*

☎ 948 599090
 URDAZUBI

BAZTAN

ALTZARIAK

zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak.
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 948 45 23 74 • IRURITA

PEIO BENTAREN

**zuzendaritza eta langilegoak
besta onak desiatzen dizuegu**



Dantxarinea

☎ (0034) 948 599389

ERRETIRATUAK

Urrezko Eztaiak eta 85 urte bete dituztenei omenaldia prestatzen hasia da Arkupeak

Maiatzaren 20a baino lehen jakinarazi beharko zaie herrietako delegatuei

ttipi-ttapa

Urtero bezalatsu, Arkupeak erretiratuen elkartek omenaldia eskainiko die aurten ere 50 urte esposaturik (Urrezko Eztaiak) egin dituzten senar-emazteei eta 85 urte beteko dituztenei. Besta ekainaren 27an izanen da, baina omenaldia jasotzeko edo, bertzerik gabe, parte hartzeko, Arkupeak elkarteko herrietako ordezkariak jakinarazi beharko zaie nahitanez maiatzaren 20a baino lehen. Omenaldia jasoko dutenek, beraien bizitzako datuak edo laburpenak, karntaren fotokopia eta Arkupeak elkarteko bazkideak izanez gero kar-net tamainako argazki bat (bertzenaz bi) eman beharko dizkiote dele-



ARTXIBOKOA

Ekainaren 27an omenduko ditu aurten Arkupeak elkarteak 85 urte eta Urrezko Ezteiak egin dituztenak.

gatuari. Arkupeak elkarteak omenduak gonbidatuko ditu (laguntzaileek gainerako bazkideek bezala ordaindu beharko dute). Data horretan argitaratuko den

aldizkarian ere agertuko dira eta zenbait oparixto jasoko dituzte.

Zaragozara maiatzaren 30ean
Ekainaren 27ko ome-

naldi egun horretaz gain, bertze hainbat ekitaldi antolatuko ditu Arkupeak elkarteak datozen hilabetetarako. Maiatzaren 30ean Zaragozara joanen dira. Pilarikaren

elizan meza aditu ondotik bazkaldu eta etxera itzuliko dira.

Ekainaren 8tik 15era, berriz, zortzi eguneko bidaia egingen dute Kataluniako La Pineda-Saloura. Ekainaren 8an abiatuko dira eta hiru izarreko Sol D'Or hotelean egonen dira. 9tik 15era inguruko herriak bisitatuko dituzte autobusean eta nahi duenak hondartzan gelditzeko aukera izanen du.

Azkenik, uztailaren 9tik 17ra Kantabriako Puente Viesgora joanen dira erretiratuak, ur tramenduak hartzera. Gran Hotelen egonen dira, pentsio osoan.

Bidai guzi hauetarako izen emateko epea akautua da, baina badaezpada delegatuei galdegiten ahal zaie.

BEINTZAKO OSTATUA
© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
© 948 630 763

PIKABEA
Molinero drogerian galdetu
pinturak
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
• Fatxadak
• Barne dekorazioa
• Pintura orokorrean
Izpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

I CHE
MALDAERREKA, S.L.
FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBE BEILATOKIA
Bortziriak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian eta etxean prezio guzietan
Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo ospitaletatik edozein herrietara
© 948 637404
© 900 704704

LEITZA

XXIV. Kultur Astea maiatzaren 17tik 26ra ospatuko da

Ehoziri Lan Zaleen lehen topaketa hilaren 19an egingen da

Mikel ILLARREGI

Datorren astean hasita, maiatzaren 17tik hain zuzen, 26ra bitartean XXIV. Kultur Astea jarriko da abian. Aste guztian eskulanak erakusgai izanen dira, baina horretaz gain, egunero izanen da zertan erabili denbora. Hona hemen egitaraua;

Maiatzaren 17a, ostirala: Oreka Tx taldearen kontzertua 22:30etan zineman.

Maiatzaren 18a, larunbata: Kukubiltxo taldea 18:00etan frontonen.

Maiatzaren 19a, igandea: Ehoziri kontzentrazioa, 11:00etatik aurrera. Jarauta 69 txaranga eta herri bazkaria.

Maiatzaren 20a, astelehena: Ganbara musika taldea, 20:00etan.

Maiatzaren 21a, astearte: "Munduari itzulia 17 urtetan" diapositiba emanaldia, 20:00etan.

Maiatzaren 22a, asteazkena: Marcel magoa, 20:00etan.

Maiatzaren 23a, osteguna: Leitzako idazlearen irakurketak, 20:00etan.

Maiatzaren 24a, ostirala: "Kuba bizikletaz" diapositiba emanaldia, 20:00etan.

Maiatzaren 25a, larunbata: Umeentzat jokoa, 12:00etan eta "Sex-Una" antzerki obra (irurtzundarrek eta leitzarrek antzestua), 20:00etan.

Maiatzaren 26a: XXII. Eskulan erakusketa, 11:00etatik aurrera.



MIKEL ILLARREGI

Adin guzietako 32 lagun biltzen dira herriko Linu putzu taldean.

EHOZIRI LAN ZALEEN LEHEN TOPAKETA

Aurten berrikuntza bat aipatzekotan maiatzaren 19an ospatuko den ehoziri zaleen topaketa. Leitzako "Linu putzu" taldeak antolatuturik Euskal Herriko hainbat tokitako eskulan honetako artisauek bilduko dira. Guztira 200 bat gehi Leitzakoak. 24 heldu eta beste 8 gazte (8-15 urte bitartekoak) dira herriko taldea osatzen dutenak. Haueetatik 16 dira duela 4 ur-

te hasiera eman ziotenak taldeari. Orduan Gloria Irurtia izan zen bultzatzailea. Taldea, 1999. urtean osatu zen, "Linuputzu" izenarekin, beraien estatutu eta guzti. Talde irekia da eta astean hirutan elkartzen da. Arantxa Grajirena da irakaslea eta orain arte "tortxon" deitzen den teknika landu badute ere, "dukesa" edo "joyeria txeka" direnak ere erakusten die. Toki askotara atera dira beraien lana erakustera

eta gizonezkoentzat ere baliagarria dela adieraztearekin batera, igandeko horretan plazara hurbil gaitzean proposatzen digute.

Egun honetako egitaraua: 10:00etan, parte hartzaileak etorriko dira eta akreditazioak banatuko dira. 10:30etan, topaketen hasiera. 13:15etan, Ehoziri lanaren erakusketaren bukaera. 13:30etan, diplomak banatuko dira. 14:30etan, Herri bazkaria.

ANTZERKIA

Antzerki-eskola, eskolakoak antzerkian

Hezkuntzako Euskara sailak antolatuturiko antzerki lehiaketan saritutako lanak, 6. mailako ikasleei ere egokitu zaie. Bai talde

bati zein besteari (A eta B gelakoak). Hauek orain beraien lanak antzestu behar dituzte Berako Labiaga ikastolan eta Arantzako eskolan maiatzaren 9an. Ondoren, maiatzaren 17an Leitzan bertan eskeiniko dituzte bi

obra hauek, goiz eta arratsalde bina saio eginez, gurasoak eta inguruko eskolak gonbidatuz. Eskeini behar dituzten lanak Aizpea Goenagaren "Ikasgela" eta "Amodio kontuak" egokitutako obrak izanen dira.

FLASH

Bertsoak

Nafarroako Eskolen arteko XVI. Bertso paper lehiaketa dela eta, maiatzaren 6an herriko zinemaren izan da zonaldeko sari-banaketa.

Behin behineko idazkari berria

Orain idazkari lanetan aritzen den Eukeni Zelaiak bere lanpostua utziko du lan honetan zazpi urtez aritu ondoren. Nafarroako Kontzeju eta Udalerrien Federazioak idazkari interinoa izendatzen duen bitartean, behin-behineko beste bat izendatu dute eginiko oposaketetan. Hau, aukeraturakoa, Natalia Rodríguez izan da.

Albaitaritza ordutegia

Hemendik aurrera "giak" egiteko albaiteroa ostiraleri izanen da eguerdiko 12etatik aurrera udaletxeko Nekazaritza Ganbaran.

Iratxe

Hilabete honetan, kontsumitzaileen aldeko elkarteak, 14 eta 28an izanen da udaletxeko lehen solairuan.

Notaritza

"Notarioa" hilean behin, hileko 2. ostegunean etorriko da udaletxera (lehen solairuan) 10etatik 12etara. Aldez aurretik ez txandarik eskatu behar.

GOIZUETA

Suhiltzaileei egoitza berria egingen diete Udalak eta Nafarroako Gobernuak

14 urteko Jon Apezetxea pilotariak hainbat txapel irabazi ditu azken aldian

Esteban AROTZENA

Suhiltzaile boluntarioen taldea osatu orduko egin zen Madalenako egoitza, baina berehala konturatu ziren txikiegia zela, autoak eta tresneri guztiak ez baitira kabitzen bertan, leku ederra baldin bada ere. Horren ondorioz, eta Udala eta Nafarroako Gobernuaren akordioari esker, bikoiztu egingen da gaur egungo egoitza urtebete barru. Lurra Goizuetak emanen du oraingo pabilioiaren ondoan, eta gainerakoa, aurtengo proiektua eta hurrengo urtean eraikuntza bera, Iruñearen gain joanen da.

Balorazio ponentzia

1995eko abenduaren «balorazio ponentzia»ren errebisio eta eguneratze espedienteari hasiera ematea erabaki zuen udalbatzak martxoaren 20an burututako osoko bilkuran.



Joan den Aste Santuan ireki zituen ateak Aitasemegi auzoko Txamoraberri landetxeak. Bi bizitzatan banatuta dago baserria eta apartamentu modura funtzionatzen du.

ARGAZKIA: ESTEBAN AROTZENA

tzia»ren errebisio eta eguneratze espedienteari hasiera ematea erabaki zuen udalbatzak martxoaren 20an burututako osoko bilkuran.

Batzordean egonen diren udal ordezkariak ere izendatu ziren, Maria Pilar Untxalo alkatesa eta Jokin Loiarde eta Ibon Elizegi zinegotziak.

Pilota kontuak

Herriko pilotari gazteak meritu handiko txapelak lortzen ari dira azken aste hauetan ere. Aipagarrienak, zalan-

tzarik gabe, Jon Apezetxearen garaipenak dira, 14 urteko mutiko honek eskuratu berriak baititu bere mailako Belate txapelketa Aritz Zubirerekin bikotea osatuz, Zizurko buruz burukoa Jon Narbarteren kontra jokaturako finalean eta Altsasuko torneoaren NARBarte bera lagun duela.

Mus txapelketa

Joxe Antonio Iribarren eta Patxi Bakerok eskuratu zuten apirilaren 27an Umore Onan jokaturako XVIII. mus txapelketa. Juan Apezetxea eta Aitor Mendizabal (iazko txapelak) izan zituzten aurkari finalean. Patxi Bakero berak eraman zuen aurreko larunbatean jokaturako truk txapelketa ere, marka handiak eginez.

URDAZUBI - ZUGARRAMURDI

Ekitaldiz betetako azken hiruhilabetea izanen dute bi herrietako eskolan

Urdazubiko bestetan itxi egingen dira

Margari eta Koro

Arras mugitua heldu da ikasturteko azken hiruhilabete hau Urdazubi eta Zugarramurdiko eskolako haurrentzat. Apirilaren 22, 23 eta 24ean bi eskolak itxi ziren eta ikasleak Pasaia-ko «Piraten etxera» gan

ziren. Apirilaren 26ean 1. eta 2. mailakoak Elizondora egin zuten irteera eta han korreos ezaigutu zuten, Xorroxinen elkarriketa bat egin zioten eta Xaloea telebistan kantu pare bat grabatu zuten. Maiatzaren 2ko goizean lehenbiziko

mailatik goitikoak Senpererat gan ziren Kantuketan erakusketa bisitatzeraz.

Maiatzaren 17an diapositiba emanaldia izanen da Urdazubiko eskolan 5. eta 6. mailakotzera. Hunekin lotuta maiatzaren 24ean Li-



Helipuertoa lehen aldiz erabili behar izan da Pazko Igandean. Azketa jatetxean bazkaltzen ari zelarik 65 urteko Bodeleko emakume bat arras gaizki jarri zen eta Senpereko suhiltzaileen anbulantzia etorri ondotik, hauek larrialdi haundia ikusi zutenaz helikopteroa deitu zuten. Frantziako SAMUko helikopteroa etorri zen eta Baionara eraman zuen emakumea.

zarra aldera ganen dira Iñigo Arista erakunde-

ak antolatutako ekin-tzetara.

BAZTAN

Polo Gartziaren kartelak iragarriko du Baztandarren Biltzarra

laz ere lehendabiziko saria jasozuen Iruñeko marrazkilariak

Rakel Goñi


laz bezala Polo Gartzia iruindarrak irabazi du Baztandarren Biltzarreko kartel lehiaketa. Irudian duzuen kartel koloretsua laster izanen da bilarako karriketan. Itziar Mena diseinatzailea, Ana Larruy margolaria, Idoia Goñi eta Ainhoa Biela Baztandarren Biltzarrako ki-deek osatu dute epaimahaia. Kartelak duen indarra goraiatu zuten hautaketa egiteko garaian. Polok 450 €ko saria jasoko du Baztandarren Biltzarrean bazkalondoko jaialdian.

Polo Gartziak 35 urte ditu eta Elizondoko Lanbide Eskolan egin zituen ikasketak. Iaz Elebete bizi izan zen baina Iruñera bizitzera itzuli behar izan zuen. 1988 eta 1989an Polok bigarren saria lortu zuen kartel lehiaketan. Bidasoako Filme Laburren lehiaketan, karteletan lehen saria jaso izan du. Baztandarren Biltzarra

Elkarteak kamisetak jarriko ditu salgai, kartelean agertzen diren bi akerraren irudia erabiliz.

Erakusketa etnografikoa

Etorkizunean Jorge Oteiza Etnografia museoan izanen diren lanabes eta material historikoak, ikusgai daude jadanik Elizondoko Bergarenea etxeko eskaparateetan. Baztango jendeek utzi dituzten tresnak ikusteko aukera dago, batzuk errestaurazio tallerrean konpondu behar izan dituzte. Elizondok martxo bitarte tresna hauen bilketari ekin dio. Halere oraindik norbaitek museorako materialen bat eman nahi badu Herriko Etxeko telefonoan mezua utz dezake, edo zuzenean Ana Marin alkatearekin harremanetan jar daiteke. Museoan areto ugari izanendira, aspaldiko lanbideak agertuko dituztenak, baztandarren bizimodua



RAKEL GOÑI

2002ko Baztandarren Biltzarra iragarriko duen kartelan bi akerrak hartuak, ageri dira.



agertzen dutenak, etxea, logela, egongela... Horrez gain nekazaritza eta baserriare-

kin zerikusia duen edozer bilduko da. Gauzak dohan emanen badira ere, horren truke herriak

FLASH

Tratu txarren hitzaldia

Eguzkilore emakume elkarteak maiatzaren 7rako hitzaldia antolatu du. "Emakumea eta tratu txarrak, ondorioak eta soluzioak" izenburupean, Ana Díez de Ure Andreako teknikariaren solasaldia izanen da, Arizkunenean arratsaldeko 7etan.

Presoen aldeko elgarretaratzeak

Hilabete bakoitzeko azken larunbatean presoak etxerat ekartzeko 30 minutuko elgarretaratzeak egingen dira Elizondoko plazan, arratsaldeko 8etan. Beraz hurrengoa maiatzaren 23an izanen da.

MEDIKUNTZA NATURALA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larri azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritria, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldeaz 2-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN



ANTXITONEA Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte

ELIZONDO

© 948 581807 • 948 581853

LARRALDEA SAGARDOTEGIA

Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua

Telleria Auzoa • LEKAROZ

© 948 452121

BAZTAN

Berroetako Mendekoste bestak maiatzaren 17tik 20ra arte

Ezkundu eta ezkongabeen arteko lehiak izanen dira astelehenean

Ortzirala 17

19:30etan Txupinazoa. Ondotik Doneztebeko Txistulariek herria alai-tuko dute. **21:30etan** Herri afaria JOXE ANGELekin. Goizaldean zinger-jatea.

Launbeta 18

12:30etan Haurjokoak, karaokea, ginkana, musikarekin. **17:00etan** Txan magoa eta ondotik denendako txokolate-jatea. **00:30etatik aitzin** Gau Pasa JOXE ANGEL eta bere taldearekin. Goizaldera ziztor jatea.

Igendia 19

12:00etan Meza Nagusia Elizondoko koralak abestua. Ondotik herriko plazan hamaiketako. **Ordu bata** inguru pilota partida mundialak. Atsaldez aizkora apostua. **19:30etan** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

Astelehena 20

12:00etan Mus eta tenis txapelketak.



Goitiko argazkian, 1931n errepublika garaian mitin politikoa herriko plazan. Beheitian, plaza berean joan den urteko bestetan zikiroaren ondoko giroa.

14:00etan Zikiro jatea JOXE ANGEL eta herriko ahotsek alaiturik.

18:00etan Ezkonduak ezkongabeen aurka lehiatuko dira: sokatira,

futbola eta abar... **21:00etan** Herri afaria Bestak akitzeko kaleji-

FLASH

Ufestuek taldearen diska

Ufestuek Baztango musika taldeak, diska grabatu ondotik, salgai jarri du. 8 abesti biltzen dituen diska 6 eurotan erosteko aukera izanen da bailarako saltoki eta tabernetan. Euskal Herriari barrena hainbat kontzertu jo behar dituzte jadanik. Taldea kontratatu nahiz gero aski duzue 948 453 248 Xabiren telefonora deitzea. Interneten ere bada taldearen informazioa, <http://es.geocities.com/ufestuek>.

Ana Marinen erakusketa Madril

Maiatzaren 7tik 28ra Ana Marin margolaria-
ren lanak ikusgai izanen dira Madrilgo Sokoa Arte Galerian. Baztan eta Euskal Herriko irudiez gain Errioxa, Cantabria eta inguruetako paisaiak izanen dira ikusgai.

Ikastolako parkeko estalpea

Elizondoko parkeko ikastolan egin behar ziren moldaketak ia akituak daude. Halere oraindik estalpe bat egin behar dute. Eurria ari duenean ikastolako eta herriko haurrek busti ez daitez egurrezko estalpea eraikiko da.

JATETXEA
© 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galeria

**MENDI
OSTATUA**

Santiago 25 - © 948 580313
ELIZONDO

ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA

**Carlos
Garaikoetxea
Etxenike**

abokatua
Aseguru orokorrak

© 948581468 • 948580433
Frantziarako etorb. 12 •
Ameztialde 3B • **ELBETE**

SARA

Herri Urrats bezperako ohiko Gaupasa larunbat huntan izanen da

Maiatzaren 25ean petanka txapelketa egingen da herrian

Aña Mari eta Fred

Larunbat huntan, maiatzaren 11n, Herri Urrats bezperako usaia-ko gaupasa antolatua izanen da herrian. Ekitaldiak arratsalde apa-lean hasiko dira Speiz Banako (dantza), Oreka (esku dantza) eta txalapartariekin. Ondotik, Elaudi taldeak kantaldia eskainiko du, eta gero rock taldeen aldi izanen da. Kolpe-K, 4 Itzal eta Parasma dira bertan ari-tuko direnak. Gualdia usaia-ko dantzaldiarekin bururatuko da.

Ihiztarien biltzar nagusia

Apirilaren 21ean, igandearekin, Sarako Ihiztariak Elkarteak bere biltzar nagusia egin zuen Gazteen Etxean. Orain arte 13 presunek osatzen zuten bulegoa: baina 5 ateri dira, Beñat Etxegarai, Jean Marc Aspirot, Peio Ber-ruet, Pantxoia Ixuribe-here eta Mattin Pikabea. Hauen ordeztu hiru berri sartu dira: Beñat Ber-ruet, Jean Mixel Saint Martin eta Mixel Goietxe. Hala ere oraindik ez dituzte izendatu lehendakari ordeza eta idazkaria. Bertzalde, uso sasoinen hainbat urtez Gaztain Lapon abata-ri lanean aritu den Mat-tin Pikabeak bere pos-tua uztea erabaki du. Beraz, heldu den sa-soinean elkarrekin abata-ri bat bilatzen du.

Bilkuraren ondotik,



ARGAZKIA: JEAN PIERRE LEMOINE

Sarako txalapartariek Herri Urrats bezperako gauean jokatu dute.

azeri ihiztariak eta bu-legoko lagunek bazka-ria antolatua zuten.

Petanka txapelketa

Maiatzaren 25ean, larunbatez, Christophe Sahastume eta Tomas Lafitte herriko gazteek antolaturik, petanka txapelketa bat egingen da herrian. Eskuaire bere-zia eskatzen duen «ki-rol» hori gustoko duten guziak parte hartzerat gomiatuak dira. Ondotik, Lastiry-ren etxean afaltzeko parada izanen da ere. Lehiaketan edo afarian parte hartzeko, izenak Herriko Etxeko Edantegian eman be-har dira 0559542519 te-lefono zenbakirak dei-tuz.

Bertzalde, egun be-rean, 80. hamarkadako musikari eskaini gual-

dia antolatua izanen da Gaztetxean.

Egun eta gau goxo baten mentura, zalan-tzarik gabe.


Sarako Itzulia Mendekoste egunez

Bi urtetik behin Axu-ria elkarrekin antolatzen duen Sarako Itzulia mendi ibilaldia Mendekostez iraganen da. Orain Axuria euskal mendizale federakun-dean sartu da eta Sa-rako Itzulia Euskal Men-dizale Federakudearen bide luzeetako ibiltarien zirkuituan sailkatua da.

Izen ematea herriko plazan goizeko 6ak eta erdietatik goiti egiten ahalko dira eta abiadak 7ak eta 8ak artean iza-nen dira. Aurtengo sar-tze dretxo 5 euro ba-lio du. Partehartzaileek

45 kilometrako ibilbide-an herriko tontor aini-tzen barna pasatuko di-ra, hala nola Suhalmendi, Larrun, Ibanteli eta Atxuria. Baina oi-nezko batzuk ezin bal-din badute itzuli osoa egin, tokika ibilgailuak izanen dira, uzten du-tenentzat plazaraino eramateko.

Heltzeak arratsalde-ko 4ak eta 8ak artean izanen dira, ibilaldia bu-rutuko dutenek, ahalaz denboraren barnean, ageri bat izanen dute. Mendi oinetakoak nahi-taez. Ahantzi dituzte-nentzat edateko eta ja-teko manera izanen da egun osoan plazan. Ohi bezala, iluntzean jende ainitz geldituko da Axu-ria elkarrekin antolatu-tako afarian. Beraz, ez ahantzi hitzordua egun goxo baten pasatzeko.



PERTSONAIA

Manex BERGARA

«Ahalkegarria»

Apirilaren 21ean Fran-tzian egin diren hau-teskundeei buruzko iri-tzia galde egin diogu Manex Bergarari:

«Oroituz gure aitzine-koek ibili dituzten lan-tegiek, eta gu ere, urte-ak joan eta urteak eto-rrri hor aritu garela ahal bezainbat egiten langi-leen bizia ontzeko, ahal-kegarria eta niretzat ne-gar egingarria da ikus-tea zein beheiti eroriak garen. Eta jakinez gai-nera Le Pen delako ho-ri zer gizon den, arra-zista, faxista... nahiz eta Chirac ez den hainbat hobia.

Gisa guzietara Chirac aterako da, ez da du-darik. Baina ikustea ezker-ezkeretik hasi eta hor dabiltzala hari emateko boza, horiek denak tristetzi izigarria atxematen dut.

Hurbilagora etorrita, ahalkegarria da ere, he-rritarretik hasiz, ikustea eskualdunek nori ema-ten dioten boza. Ez da harritzekoa gero ber-tzeen menean behar dugula bizi. Saran bere-an, ikusten dut beti Chi-rac-en alde doala gehie-na eta Le Penen alde beriz, haunditu egin de-la. Horiek denak ez di-ra nere gustukoak».

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

CAFÉ DE LA MAIRIE

MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

AZKAIN

Errugbilariek finala irabazi dute

Aratzen aldeko bazkarian ehun lagun bildu ziren apirilaren 21ean

Ihintza, Angela eta Eneko

Sasoina ederki bukatzen dute errugbilariek aurten. Lehen taldea ez bada ongi ibili ere bigarrenak ekarri digu espero genuen azken pindarra. Landese-ko Ondres herriko estadioan iragan zen finala apirilaren 27an. Labatut herriaren kontra aritu da Azkain. Landes-tarrak talde haundian etorriak ziren eta musikari talde alaia ekarria zuten beraiekin. Baina azkaindar ikusleak ez ziren eskuak hutsak etorri. Goizean prestatutako tresneri arrabosdun bitxi batekin egin zuten ahal zutena beren sustengua jokolariei adierazteko.

Lehen bederatzi puntuak landestarrek zituzten markatu penaltate guziak baliatuz baina entsegurik gabe. Azkaindarrek aldiz puntuetan hurbiltzeko okasioak huts egin zituzten lehen zatian. Ondotik entsegu bat markatu zuten baina tran-

formaizinerik gabe. Azkenean atsedenal- d-ian 9 eta 8tan elkar utzi zuten penaltate bati esker aurkalarien abantaila ttitikuz.

Bigarren zatian Azkainek abantaila hartu zuen jokoan baina luzaz deus konkretizatu gabe. Eta ustegabe- an, defentsa akats haundi batengatik Labatut- arrek esperantza ttititu- zien Azkaindarrei, entsegu bat markatuz (16-8). 20 minuta baizik ez ziren gelditzen. Izpiritua argi atxikitzen jakin zuten herri- tarrek pazientziarik ez galtzeko eta laster entsegu bat markatzeko bere transformazioe- arekin, ondotik bigarren bat, eta oraino penalti- tate bat (25-16).

Azkenean Landes- tarrek ere azken entsegu bat markatu zuten baina ziloa sobera haundia egin izan zen (25-21). J-Pierre Hiriba- ren jokolari gaztea izan zen matxako puntu egiteko hoberena (10 puntu).

Arratsean berean Au-



Jokalariek Xabi Desert jokolari zauritua ohoratu nahi dute argazkian.

zapezak errezebitu zituen jokolari eta entrenatzaile guziak, aperitif- a eskainiz Bil-Tokin.

Sukalki lehiaketak ez du arrakasta handirik izan

Besta komiteak animazio egun bat antolatu zuen apirilaren 27an baina arraskastarik ez zuen izan. Goizeko sukaldari lehiaketa anula- tua izan zen ortziraletik izen emaite gutti izan baitzen. Horren ondorioz bertze animazioen ikusterat ez da jende aini- tz hurbildu. Hala ere Xiberotarrek dantza ikusgarri bat eskaini zu- ten, ondotik Koldo Amezt- oi kondalariarekin buka- tu da arratsaldea. Belardiren kantaldi- a ez zen egin lokala eskasagatik.



Agustina Lascanotegik, Beratarra sortzez, eta Pierre Agirrek, Erratzun sortua, urrezko ezteiak ospatu dituzte aurten. 1952 urteko apirilaren 26 ezkondu ziren.

Bestentzako marrazki lehiaketa
Herriko bestentzat marrazki zoin gehiagoka

bat antolatu zuen komiteak. Xamoren- a (Jean- Mixel Larroket) hauta- tua izan da.

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA URDAZUBIN



300 m² perfume markarik ezagunene- kin
Usain-onak, kosmetikoak...
Euskal Herriko preziorik hoberenak

© (0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**



SEAT AUDI VW SALMENTA
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxe: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)



EZKONTZAK



JAIOTZAK

Lur Helene Iriarte Kaperotxipi, Berakoa, apirilaren 21ean.

Mattin Urbietia Palomo, Etxalarkoa, apirilaren 12an.

Xabier Telletxea Irazoki, Etxalarkoa, apirilaren 17an.

Oier Mikelarena Ariztegi, Iturengoa, apirilaren 14ean.

Aimar Sarreatea Etxekolonea, Doneztebekoa, apirilaren 27an.



HERIOTZAK

Juana Barrenetxe Zelaieta, Berroetako, apirilaren 22an, 91 urte.

Federico Azpiroz Irazusta, Etxalarkoa, apirilaren 22an, 89 urte.

Maria Concepcion Irigoien Zubieta, Etxalarkoa, apirilaren 29an, 86 urte.

MENDIALDE Jatetxea



AMAIUR • ☎ 948453060

Zure publizitatea
ttipi-ttapan
948 63 11 88



BAZTAN FUNERARIA

Mateo Lertxundi

TANATORIO ZERBITZUAK

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK

Pedro Axular, 6 • ELIZONDO
• ☎ 948 580373 • 608 776176



G U T N T I T L E
I CHE
GESTI NES F NE ES EL N TE, S.L.

TANATORIO BAZTANDARRA

Santiago 52
ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,
Urdazubi eta Zugarramurdin
24 orduko zerbitzua tanatorioan
eta etxean prezio guzietan

☎ 948 581959

☎ 900 704704

Eskela eta
eskertzak
ttipi-ttapan
948 631188

Eskela jartzeko
(nahi izanez gero
argazkiarekin) 63,10
€ ordaindu behar da
Rural Kutxako
3008 0080 53
0703304626
kontuan sartu eta
justifikantea ttipi-
ttapara igorri faxez
edo postaz,
argazkiarekin eta
sartu nahi den
testuarekin batera.

TXIRRINDULARITZA



AITOR AROTZENA

Erakurri txirrindulari elkarteak apirilaren 26an aurkeztu zuen Etxalarko Bentan afizionatu mailan errepideratuko den Azpiroz-Saralegi eraikuntzak - Eva Edariak taldea.

Erakurri txirrindulari elkarteak afizionatuetako taldea aurkeztu du

Azpiroz-Saralegi eraikuntzak eta Eva edarien laguntza izanen du

Apirilaren 26an aurkeztu zen Etxalarko Bentan Erakurri txirrindulari elkarteak aurtien errepideratuko duen Azpiroz-Saralegi-Eva afizionatu mailako taldea. Luis Vicente Otin Leitzako txirrindulari profesional ohia eta Javier Garaioa zuzendarien erranetara hamasei txirrindulari ariko dira. Horien artean Lisban Ferlei kolonbiarra ariko da lehen aldiz. Aurkezpen ekitaldian, taldeko txirrindulari, teknikari eta taldea lagunduko duten enpresetako ordezkariekin batera Miguel Indurain txirrindulari ohia, Patxi Vila ibanesto.com

AZPIROZ-SARALEGI-EVA TALDEA BANAN BANA			
Txirrindularia	Adina	Herria	Denboraldiak taldean
Josu Andoni Costa Gil	20 urte	Caparros	2
Diego Cortizo Lacalle	19 urte	Gasteiz	1 (C.C. Forondatik dator)
Joseba Diaz de Garayo	20 urte	Ziordia	1
Jose Javier Diaz Santolaya	25 urte	San Adrian	
Adur Ederra Beloki	24 urte	Iruña	1 (Telco'm Ordokitik dator)
Santiago Jimenez Martinez	21 urte	Alfaro (Errioxa)	1
Miguel Jimenez Vara	23 urte	San Adrian	4
Iñigo Flamarique Alvarez	19 urte	Iruña	1 (C.C. Peraltesetik dator)
Iñigo Mateos Oña	19 urte	Irun	1 (C.C. Irunesetik dator)
Gorka Maiz Garmendia	20 urte	Lazkao	2
Mikel Mendia	19 urte	Amurrio	1 (C.C. Amurriotik dator)
Aitor Juanbeltz Zurbano	20 urte	Iruña	2
Oscar Regalado Diaz	22 urte	Zizur Nagusia	2
David Reyero Arteta	24 urte	Ansoain	1 (Promociones Torrezaletatik dator)
Javier Samaniego Esparza	24 urte	Biana	1 (Telco'm Ordokitik dator)
Lisban Ferlie Quintero	20 urte	Kolonia	1
Zuzendariak: Luis Vicente Otin eta Javier Garaioa			
Laguntzaileak: Mikel Gurrutxaga eta Iñigo Leache			

taldeko txirrindulari bateratara, Inaxio Errandonea Alkaiagako pilotaria eta Oteiza, Federaziooko hautatzailea izan ziren. Egun bakarreko

80 bat lasterketetan parte hartzeaz gain, eta paka eginen diren bi itzulietan parte hartzeko asmoa dute, tartean Nafarroako Itzulia. «Hori

lortuz gero, profesional batentzat Frantziako Tourrean parte hartzea bezain garrantzitsua izanen litzateke» zioen Luis Vicente Otinek.

FLASH

Urrezko Aizkora azken txanpan

Igande honetan, maiatzaren 12an, Mikel Mindegia eta Arria Varen arteko norgehiagoka ikusiko da. Apirilaren 28an Tolosan jokaturako desafioan egurra eman zion zaharrak gazteari, baina orain kontuan ezberdinak izanen direla uste du Ezkurra-koak: «Lana diferentea da, baina beti ere moral gehiagorekin joango naiz. Tolosan galdu izanaren banu moral gutxiagorekin joango nintzen». Bertze aldetik, Donato Larretxea aranztarraren eta Joxe Mari Olasagasti igeldoarraren arteko finalerdia maiatzaren 15ean, San Isidro egunez, jokatu da Arraten. Lazkaoako plazan apirilaren 28an egin zuen lehen saioan nahiko aisa menderatu zuen Donatok Arrospe eta bere burua ongi ikusi zuen. «Olasagasti ongi dago, eta hori kontrario gogorra izanen dut, baina saiatuko naiz irabazten. Lazkao bezalako saioa egiten badut lanak ematen ahal dizkiot. Uste dut saioa final aurreratu bat izan daitekeela, nahiz eta ez den ahaztu behar Penagarikano, Nazabala eta Mindegiaekin».

Herri Kirol Jolasak

Igande honetan jokaturako dira Arantzan Nafarroako Herri Kirol Jolasen finalak, haur nahiz kadete mailan. Arantzako neska-mutikoen proba konbinatuan parte hartzen dute haur eta kadete mailan, eta Nartabeko kadete mailako proba konbinatuan nahiz sokatiran ari dira. Haurretan, txapela janzteko faborito dira aranztarrak.

AGENDA

egunez egun

KONTZERTUAK

URDAZUBI

Maiatzaren 10ean PUNK Kontzertua gaurditik aitzin kaotiko, Txapel Punk eta Ufestuek. Ondotik DJak.

SARA

Maiatzaren 11n. Kolpe-K, 4 Itzal eta Parasma.

LEITZA

Maiatzaren 17an. Oreka TX arratseko 10:30etan Leitzako Zine Aretoa.

Maiatzaren 20an. Ganbara musika taldea arratseko 20:00etan.

BESTAK

URDAZUBI

Maiatzaren 8tik 12ra. Begiratu xehetasunak erdiko gehigarrian.

IRURITA

Maiatzaren 8tik 12ra. Begiratu xehetasunak erdiko gehigarrian

BERROETA

Maiatzaren 17tik 20ra. Begiratu xehetasunak 21. orrialdean.

ERAKUSKETAK

BERA

Maiatzaren 17a bitarte Gorria izeneko pintura erakusketa Jamotenean.

KULTUR EGUNAK

LEITZA

Maiatzaren 7tik 26ra Hamar eguneko egitarau zabal baten barnean musika, umeentzako jokoak, diapositiba emanaldiak, Leitzako idazkeen irakurketak, eta maiatzaren 26an XXIV. Eskulan erakusketa goizeko 11:00etatik aurrera. Xehetasun gehiagoren berri izateko, begiratu 19. orrialdean.

ttipi-ttapa • agenda praktikoa



VIII. MUGAZ GAIN JAIALDIA

Eskolarteko antzerkia ttipi-ttapa telebistan

Berako Kultur Etxeko taularen gainean, maiatzaren 16a, 17a, 30a eta 31n izanen da goiz eta arratsalde, VIII. Mugaz Gain jaialdia. Maiatzaren 16 eta 17an Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoetako ikasleek eskainiko dituzte antzezlanak euren adineko gazteendako, eskola orduetan.

Maiatzaren 30 eta 31n Lehen Hezkuntzako ikasleen txanda izanen da. Arratsaldetan ate irekiak egingen dira Berako Kultur Etxean, eta bertan, Bortzirietako talde guztiek parte hartuko dute.

Dena den, Mugaz Gain antzerki

jaialdiarekin ez dute bakarrik gaztetxoek gozatzen, gurasoek ere ederki aski ongi pasatzen dute. Eta ikuskizuna zuzenean gozatzetik ez dutenak bat baino gehiago izanen direnez, lasai egon, TTIPI-TTAPA TELEBISTAK elkarrizketak, iritziak, eta nola ez, antzerki obrak zuen etxeetara ino eramanen dizkizue, orain egunean eguneko berri emanez, eta oporretan, antzeslanak osorik eskainiz.



DISKAK



«Kale usainak»

Haragi Gordiña

HARAGI GORDIÑA

Mal de Ojo taldearen desagerpenarekin kezkatuak zeuden zaleek irrifarra berreskuratzeko moduko diska topatuko dute Haragi Gordiña talde berriaren «Kale usainak» diskan. Izan ere, Mal de Ojo abotsak, Adrian Perezek, eta Aitor Atxega baxuak sortu dute, Juanjo Otxandorena (gitarra eta buzukia) eta Iker Telleria perkusioarekin batera Haragi Gordiña taldea. Hauekin batera, Alex Zulaika bateriak eta Juan Zulaika tekladuak kolaboratzen dute erritmo gozo eta letra sozialak dituen diska honetan. Izan ere, izenburuak dioen bezala, kale usaina dario diskari. Karrikako kontuak, amodioa, prostituzioa... Mal de Ojo ohikoak ziren gaiak lantzen ditu bere letretan Haragi Gordiña taldeak, baina goxotasunez betetako modu intimistago batean... eta guziak euskaraz!

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(Apirilaren 12tik 19rako prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 32,19€

Zerri gizena
(95-100): 1,09 €

Zerramak:
0,56 € kilo, bizirik.

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,31

1.koa 3,19

2.koa 3,07

Urruxak: Pta/kg. Kanal

Extra 3,37

1.koa 3,25

2.koa 3,13

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pasatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Mestizoak: urruxak

234,39 € eta idixkoak

222,37 €

Nabarrak: urruxak 216,36 € eta idixkoak 192,32 €.

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,01/3,07

Zaldi-behorrak: 1,92/1,98

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,30/5,50

8-10 kilokoak: 4,55/4,95

JAKIN BEHARREKOAK



Nola erran adoptatua dela

Haurri adoptatua dela erratea beti izan ohi da kezkarako gaia gurasoendako. Beldur dira haurrek aunitz su-frituko dutela, bere jatorriaz gehiago jakin nahi izatea edo gurasoak maitatzeari uztea.

Gaur egun adopzioa ez da izkututzen den gauza, batez ere nazioarteko adopzioekin argi ikusten baita haurra ez dela seme biologikoa. Haurrak bere jatorria ezagutzeko eskubidea du, eta gurasoek azalpenak emateko obligazioa. Ekintza honetan ez da go ezertan lotsatzerik. Haurrak jakiten badu ez zaiola egia erran, gurasoengan zalantzak

Haurrak bere jatorria ezagutzeko eskubidea du, eta gurasoek azalpenak eman behar dizkiote.

izan ditzake eta segurtasuna gal dezake. Gurasoek bere semea izateagatik duten poztasuna azaldu behar diote.

Azalpenak emateko unerik hoberena zein den haurrak berak markatuko du, 3 edo 4 urte dituen izaten ohi da. Momentu horretan haurra galderak egiten hasten da. Gezurak saihestu behar dira. Azaldu behar zaio, guraso biologikoek bera zaintzeko arazo-

ak zituztela eta, ongi zaintzen jakinen duen familia batekin egotea erabaki zutela.

Haurra handitzen den heinean, gertakariak ulertu ditzan, egokia litzateke adopzio prozesua nola izan zen azaltzea eta ahal balitz argazkiak erakustea. Haurrak segidoan ulertuko du, hezi, maite eta zaintzen duten pertsonak bere gurasoak direla, odol bera ez izan arren.

Liburua: "Hijos del corazón. Guía útil para padres adoptivos." Javier Angulo. Edit. Temas de Hoy

Rakel Amigo
Bortziritako Gizarte zerbitzua

LIBURUAK



Hatsaren poesia olerki bilduma

Hainbat idazle

HATSA Elkarte

Senpereko HATSA elkarteak laugarren urtez segidan, poesia bilduma publikatu du. Euskal Herri osoko jendeen olerkiak bildu dira liburu honetan, idazleek ez dute zertan poetak izan beharrik, edozeinek parte har dezake bere olerkiekin lan honetan. Euskaraz poesia idazteko gogoia bertzerik ez da behar. Aurten 75 lagunek parte hartu dute, heldu den urtean nahi izanez gero, zure lanak bidaltzakezu bosgarren edizioan publikatzeko. Horretara-

ko e-Postaz edo diskete batean lanak bildu eta HATSA Elkartera bidali, FR-64310 Senpere. Liburuko testuak idazleak bidali bezala agertuko dira. Testuarekin batera idazlearen argazkia eta irudiren bat (bakoitzak hautatzen duena) argitaratuko da. Euskal Herriko hainbat liburutegitan aurki daiteke. Bertzenaz eskuratu nahi duenak HATSA elkartera jo beharko du (0033) 559 541 143 telefonora deituz. Zure poesiak Poesia Bilduman publikatuko dira.

AGENDA egunez egun

ZINE KLUBA

BERA

Maiatzak 9. Bizitzaren arbola. Iran. Euskaraz.
Maiatzak 23. En tierra de nadie. Jugoslavia.

MUSIKA

DONEZTEBE

Maiatzaren 17tik 19ra Esku Soinuaren Asteburua antolatu dute Irungo Musika Eskolako akordeoi taldeak eta Doneztebeko Musika Eskolako akordeoi taldeak. Ortziralean, 21:00etan Akordeoi Klasikoa Elizan, Josu Juanena eta Iñaki Dieguez en eskutik. Larunbatean, 19:00etan kalejira. 20:30etan erromeria Santa Luziaren plazan. Fran Idareta, Salvador Madariaga, Mañuel eta Eusebio, Fermin Leiza, Javier Ramos, Mikel Urtxegi, Lesaka, Labaien, Sunbilla eta Doneztebeko akordeolariak. Igandean, 11:00etan kalejira. Goizeko Meza ondoren kontzertua Elizan.

MENDI IBILALDIAK

SARA

Maiatzaren 19an Sarako IX. Itzulia. 45 km.ko ibilbidea. Abiatzeak 7etarik 8ak bitartean egingen dira eta izen ematea 6,30etarik goiti.

ANTZERKIA

LEITZA

Maiatzaren 17an eskolako 6. mailako ikasleek Aizpea Goenagaren «Ikasgela» eta «Amodio kontuak» obrak eskainiko dituzte, goiz eta arratsalde bi saiotan.

OSPAKIZUNAK

SENPERE

Maiatzaren 12an Herri Urrats Iparraldeko Ikastolen besta egingen da Senpereko Aintziran.

00-34 **948 63 11 88**

Sail honetan iragarkia jartzeko 6,30 € ordaindu behar da. Titi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 6,30 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea titi-ttapa igoz faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZITAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. titi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

BERA. Pisua salgai mobilizatua, garaje, kalefakzio,

**BULDAIN
LEITZAN**
9 pisu salgai,
batzuk garajearekin.

☎ 649 476 615
☎ 948 510 534 bulegoa

BERA. Etxea, lur eremuarekin salgai. Herrian bertan. Prezio interesgarria.

☎ 607 978656

SUNBILLA. Eraikitzen ari den etxea, lur eremuarekin salgai.

☎ 948 451841
☎ 607 978656

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

ADOS

DONEZTEBE
Pisu berriak salgai. Azken bi etxeak. Bigarren eskuko bi etxe salgai. 5.500 m²ko terreno eraikigarria, 2 txalet egiteko aukera.

BERA

SALGAI: Pisu batzuk, ostatur den bajera, 2 pisu Eztegar Pasealekuan
☎ 607 978 656

ADOS

DONEZTEBE
Renault parean pisua salgai. Hagitz egoera onean. Prezio arras interesgarria.
☎ 948451841 • 607978656

trastero eta lorategiarekin. ☎ 948 631 074 (gauez)

ELIZONDO. Pisua salgai

Braulio Iriarten. Mobilizatua eta berritua. ☎ 667 418 661

ELIZONDOtik hurbil **etxetikia** salgai. Arras ongi apaindua, lorategiarekin, kalefakzioa eta musika-haria gela-tan. ☎ 636 249 483 (Luis)

LEITZA. Pisua salgai Amazabal. ☎ 948 510 270

LEITZA. Borda 15.000m²ko lur eremuarekin salgai edo errentan emateko. Zuhaitz eta landareekin. Dena itxia. ☎ 686 238 156

LESAKA. Pisua salgai Bittiriako plazan. ☎ 948 634 181 (arratsko 8etatik aitzin)

BERA. Duplex pisua salgai Eztegar pasealekuan. 1. solairua 125m² 2. solairua 30m². Prezio negoziagarria. ☎ 948 630 251- 649 526 401

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

SUNBILLA. Etxea errentan emateko. Herriatik 3km-ra. Urte osorako. ☎ 948 393 070

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

LESAKA. Familia batek pisu edo etxea behar du errentan hartu edo erosteko. Premiazkoa. ☎ 609 477 277

GARAJEAK/LOKALAK

108 Erosi

BERA-LESAKA. Bajera erosiko nuke, 50-75 m²koa bada hobe. ☎ 699 894 097



BAZTANGO UDALA

Sukaldean erabilitako olioien bilketa egunak

2002ko maiatzaren 23an

Elizondo	9:00-13:00	Merkatuko zelaia
Elbete	13:05-13:30	Karriketan barna
Arizkun	13:45-14:15	Karriketan barna
Erratzu	14:20-14:50	Karriketan barna
Amaiur	15:00-15:30	Karriketan barna
Azpilkueta	15:40-16:00	Karriketan barna

☎ 948 580 006

Baztango Udala



BERAKO UDALA AYUNTAMIENTO DE BERA

BORTZIRIAK KALEKO BAJERA SALTZEA

- **Kontratuaren xedea:** Agerran, Bortzirak kaleko 60. zenbakian duen bajera saltzea.
- **Esleipen modua:** Enkante publikoaren bidez.
- **Kontrata aurrekontua:** 248.250 euro (BEZ sartu gabe)
- **Behin behineko fidantza:** Kontrata aurrekontuaren %2a (4.965 euro).
- **Proposamenak aurkeztea:** Iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta ondoko 27. egun naturala arte. Orduak: 9:00etatik 13:00etara. Azken eguna larunbata suertatzen bada, astelehenaraino luzatuko da.
- **Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea:** Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta ondoko 5. egunean. Egund hau larunbata suertatzen bada, ondoko astelehenaren irekiko dira. Ordua: 14:30.
- **Baldintza administratibo plegua eta gainerako baldintzak** interesatuen eskura Udala bulegoetan eta internet-eko <http://www.animsa.es/tablon-anuncios/> helbidean egoten dira

Bera, 2002.04.18

ALKATEA,
J.J. Goya Echeverria

GARAJEAK/LOKALAK

111 Traspasoak

ELIZONDO. Ostatur eskuz aldatuko genuke. Errenta baxua. ☎ 948 585 016

LURRAK/ORUBEAK

112 Saldu

LESAKA. Nabaz auzoan 5.000 metro koadroko lur eremua salgai, eraikitze modukoa. ☎ 948 637 903 (arratsaldeko 6etatik aitzin)

LANA

301 Eskariak

32 urteko emakumea Bortzietan **edozein lanetan** arituko litzateke. ☎ 699 054 216

26 urteko neska euskaldunak **goizetan lan** egingen luke. ☎ 649 729 665

Garbiketa lanetan edo haurrak zaintzen arituko nintzateke. ☎ 650 818 985

Garbiketa lanetan edo haurrak zaintzen, edo jatetxeetako fregaderan arituko nintzateke. ☎ 626 852 937

Udako goizetan haurrak zaindu edo etxea garbituko neke. ☎ 948585119



Iruritar
Kanpo eta barne alderako margoak
Kolare guztiak prestatzen ditugu
☎ 948 45 22 50 • IRURITA

LANA

302 Eskaintzak

BERTIZ. Natur Parkean lan egiteko jendea behar da. Kurrikulum-a: Natur Interpretazio Zentrua, Bertizko Jaurerriko P.N., 31720 Oieregi. Biologia, ingurugiro heziketa, nekazal ingenieritza edo zetikusia duen zerbait ikasi duten ikasleei zuzendua.

IRUN. Neska euskalduna behar da etxeko lanak egiteko, interna moduan. ☎ 943 632 283 • 686 480 495

IBARDIN. Bi pertsona behar dira dendan lan egiteko. Bat egunero aritzeko eta bertzea asteburu eta udarako. Frantsesa jakitea beharrezkoa da. ☎ 948 630 175 (8:15etatik 19:00etara, astelehenak ezik)

URDAZUBI. Kamarera behar da asteburuetan lan egiteko. ☎ 948 599 222

IBARDIN. Almazenean lan

egiteko mutila behar da urte osorako, eta frantsesa dakien **neska dendarako**. ☎ 948 630 734

ZUBIETA. Errotan erakuslea behar da. 18 urte baino gehiago, EGA izatea eta es-

kola graduatua. Kurrikuluma bidali Zubietako Udalerara. Epea: maiatzaren 28a.

MOTORRA

501 Salerosketak

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Opel Monterey 5 ate, Opel Corsa 3 ate TD, Astra 1.6 Club, Megane TDI, Terrano II 125cv, Clio Diesel.
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN



Irurita etxea SUNBILLA
☎ 948 450 399
☎ 696 974 454

Ibiza TDI, Renault Kangoo, Land Rover Discovery eta Defender, Nissan Pick Up


Terrano II eta Patrolak luzeak eta motzak



TTIPI TXARTELArekin
**ttipi-ttapa aldizkaria debalde hartuko duzu
eta txartela duten guztien artean
oparien zozketak egingen dira hilabetero**

**Jakinzazu
TTIPI TXARTELA
ttipi-ttapa fundazioa
finantziazteko erreminta ere badela.
Nafarroan euskararendako dirulaguntzak
gero eta murrizagoak direnean,
jendearen aportazioa
inoiz baino garrantzitsuagoa da**

**zientoka ur tantek
betetzen dutelako ontzia**



HODEI AYOROA APEZTEGIA itundarrak maiatzaren 5ean 3 urte beteko ditu. Aurtizko Ekiñen partetik.



OHIANA ELTZAUDIA ARIZTIA, beratarrak, 5 urte beteko ditu apirilaren 29an. Zorionak familiaren partetik.



XABIER ETA ENEKO SANZBERRO TELLETXEA maiatzaren 14 eta ekainaren 20an, 5 eta 2 urte beteko dituzte. Zorionak etxeko partetik.



MIKEL MINDEGIA txapeldunak urteak bete ditu apirilaren 26an. Zorionak Lesakako kintoen partetik.



IKER TELLETXEA IGOA beratarrak maiatzaren 5ean urtea beteko du. Zorionak familiaren partetik.



JULEN ALZUGARRAI URZELAI beratarrak maiatzaren 20an 6 urte beteko ditu. Zorionak aita eta amaren partetik.



JANIRE APEZTEGIA ETXEBESTE sunbildarrak maiatzaren 12an 6 urte beteko ditu. Zorionak famili guziaren partetik.



TIBURCIO APEZTEGIA ETA HODEI AYOROAK urteak beteko dituzte maiatzaren 5ean. Zorionak bikote, muxu handi bat etxeko partetik, berexiki Aizea eta Aitzan partetik.



JANIRE APEZTEGIA ETXEBESTE sunbildarrak maiatzaren 12an 6 urte beteko ditu. Zorionak Aurtizko Ekiñen partetik.



JAIONE TELLETXEA MENDIGUTXIA lesakarrak maiatzaren 8an 5 urte beteko ditu. Muxu bat Mary Poppins. Atta, ama eta Amaia.



MIKEL APEZTEGIA ETA AINARA ZABALETA lehengusuak, maiatzaren 2an eta 14an urteak beteko dituzte. Zorionak Leitza eta Goizuetako familiaren partetik.



ANE ETXEPELEKU BURGETE lesakarrak maiatzaren 2an bete ditu 4 urte. Zorionak atta, ama, Jon eta familiaren partetik.




ARITZ IRIZOKIK maiatzaren 29an 3 urte beteko ditu. Zorionak aitaxi eta amabixiren partetik.



EDURNE PACHECO beratarrak maiatzaren 28an urteak beteko ditu. Zorionak Ane eta Ainararen partetik.



ARANTXA SESÉ AGARA beratarrak maiatzaren 12an 4 urte beteko ditu. Zorionak Maddi, ama eta attaren partetik.



XABI ETA IRAKI beratarrek apirilaren eta maiatzaren urteak bete dituzte. Zahartuak zaudete dagoeneko! Afaria noiz? Aritzen partetik.



ZORIONAK!



SEVE INDAKOETXEA ETA ELIXABET E. aranztarak urteak beteko dituzte maiatzaren 16 eta 6an. Zorionak eta muxu haundi bana etxeko partetik.

Peugeot 306 baten, lau llanta berri eta lau gurgil salgai. 185-60-R14 neurrikoa. Egoera onean. ☎ 617 144 210

Peugeot 106 Long Beach kotxea salgai. 44.000 km. Itxiera zentralizatu, CDarekin, kristal igogailu elektrikoa. ☎ 696 075 518

Peugeot 205 diesela, 1.8 cc salgai. NA-AS, haize egokituarekin. Hagitz egoera onean. ☎ 637 833 881 edo 948 635 097 (gauzez).

Tamaha XT 600 Trail motoa salgai. ☎ 948 627 587 (gauzez).

ANIMALIAK

602 Saldu/Erosi

Oilagor ehiziko zakurema salgai, 5 urtekoa da. ☎ 670

251 632

Malamute arrazako, urte bateko xakurra opari emateko. ☎ 948 451 518

Ahuntzak salgai, antxumearekin edo antxumegabe. ☎ 948 510 517

Spaniel arrazako zakur emea, 2 urtekoa, salgai. Prezio onean. ☎ 948 630 405 (Ilu-nabarrean deitu).

DENETARIK

701 Galdu/Aurkituak DONEZTEBE. Bi plaka dituen urrezko pultsera galdu da. (eskertuko da) ☎ 619 913 375

DENETARIK

702 Salerosketak

49 cc. ko mobileta ia berria (4.000 km), karre-rako bizikleta merkea, euliak izutzeko kortina eta arropa zabal-tzeko tenderetea (2m luze eta 1m zabal) salgai. ☎ 948 510 132 (eguerdi eta arratsetan) Patxi.

ZZ Fabiola Zapaterian likidazioa. Negozioa ixten denez, dena %50ean. ☎ 661 345 634

Karreterako bizikleta salgai, gutti ibilia eta egoera onean dagoena. ☎ 948 450 598

KULTURKARI

publizitatea t zerbitzuak



manelsa

elektrizitate industrial

**Instalazio eta muntaia
elektrikoak
Mantenimendua
Automatismoak
Iluminazioa**

Amaiur 2, behea
Sakelekoa: 686 466 865
31700 ELIZONDO

Artekale 22, behea
Tel. eta faxa: 948 301 025
Sakelekoa: 686 466 866
31195 BERRIOZAR (Nafarroa)

MUEBLES A METS

Sarrera BERAtik da

Alkaiagako industrialdean

Sastrin karrika, 3.2 - 3.4

31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537

Fax. 948 631 443

Larunbat arratsaldetan irekia



- *Ofizialendako planoak*
- *Aurrekontuak konpromezurik gabe*
- *Elektrogailuetan eskaintzak*

- *Bat datozen mahaiak eta aulkiak*
- *Proiektua ordenagailuz:*
- Ikusi zure sukaldea erabaki baino lehen*



URDAZUBI


maiatzak 10 • ortziralea • gaueko 12etan

KAOTIKO

TXAPEL PUNK

UFESTUEK

DJ'S



Sarrera
dohainik